



## Erdi aroa Etxarri Aranatzan

Aker Gorriak elkartearen dueluak, taldekako borrokak eta akanpaleku bikingoa izan ziren asteburuan / 22-23



Hiru ugatz gure artean / 2-3

**Altsasuko Udalak Emai, Emakumeak Ahalduntzeko Gunea programa aurkeztu du** / 8-9

**Elkar Mugiren balorazioa egiterakoan Esklerosi Anizkoitza elkarteak esker ona adierazi du** / 12

**Pablo Urtasunek Kern Pharmaren loraldia urte askotako lanaren emaitza dela nabarmendu du** / 17

**Uharte Arakil Beriain Km Bertikal ikusgarrian, Ramos eta Urrestarazu protagonistak** / 18-19

**Duela urte bat inguru bost lagunek musika proiektu bat martxan jarri zuten: Bulkada taldea** / 21

SINADURAK



AINGERU MIKO  
AZPIROTZ / 4



SAKANAKO  
GIZARTE  
ZERBITZUAK / 4



IRATI EIZAGIRRE  
SAGASTIBELTZA / 23

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Aralarren Ugaitz bikote bat dago eta bikote horrek txittoa izan du aurtan. Eta Nafarroako Ingurumen Departamentuak agorrilean jakinarazi zuenez, txito horrek koskortu ondoren hegan egitea lortu du.

**Ugatza bertako berezko espezie bat da?**

Bai, gure artean beti egon den espeziea da. Baina, egia da, mehatxatutako espezieen katalogoan sartuta daukagula, desagertzeko arriskua duelako. Duela hamar-kada batzuetatik dago egoera larrian, baina badirudi, Nafarroan behintzat, bere egoera pixkanaka hobetzen ari dela.

**Zergatik dago desagertzeko arrisku larrian?**

Gehienbat bere bazkagatik. Ugaitza oso-oso espezializatuta dago abereen hezurak jaten. Abeltzaintza estentsiboaren gain-behera bat daukagu, gero eta abere gutxiago daude mendian. Hori izan daiteke arrazoi nagusia, baina duela urte asko gain-behera izugarria izan zuen. Beste garai batzuetan, gosea zeukatenean, segur aski ehizatu zuten. Bakarra beharrean arrisku faktore ugari egon dira.

**Aralarren bikote bat dago, noiztik?**

Kiriku izeneko ugaitza duela 15 urte pasa azaldu zen estreinakoz. Arra zen, Irunberrri aldetik etorri zen. Han jaio zenean nire lankideek markatu zuten eta Araitz inguruan aspaldi ikusi genuen. Ondoren beste batzuk azaldu ziren. Markatuta zegoen Muel emea bere bikotekidea izan zen. Eta duela 6 bat urte, beste ar bat etorri zen, eta Aralar inguruan ugaitz klima bat sortzen joan da. Kiriku dagoeneko ez dago, duela urte batzuk desagertu zen, segur aski adinagatik hila egon da. Muel eta beste ar bat, Eder, duela bost-sei urte saiakerak egiten izan dira, kabia egiten-eta. Saiakerak egin dituzte, baina umatzea aurrera ateratzea oso zaila da. Hainbat faktorerengatik orain arte ez zuten lortu eta aurtan, estreinakoz, lortu dute txittoa jaiotzea, haztea eta bere kabuz kabitik salto egitea. Hori da be-

# "Ugaitzen alde? Abeltzaintza estentsiboa lagundu"

**IBAI ETXABARRI OROZ NAFARROAKO GOBERNUKO BASOZAINA**

Ugaitzak, desagertzeko arrisku larrian dagoen espezie horrek, presentzia du Aralarren, pitteka, gero eta gehiago



Ibai Etxabarrri Oroz ugaitza behatzen. UTZITAKOIA

rezitasuna, aurtan lehen aldiz txito batek hegan egin duela.

**Zergatik da lorpen bat txittoa hegan egitea?**

Desagertze arriskuan dagoen mehatxatutako espezie bat da estatuan, eta ale bakoitzak kontatzen du. Nafarroan beti Pirinio aldean lortu da: Erronkarin, Zaraitzun, Irunberrin. Pirinioetako klimarekin askoz ere erraztasun handiagoarekin egiten dute kabia. Eta aurtan lehen aldiz izan da handik kanpo, eta non eta Aralarren. Hori Nafarroarendako oso garrantzitsua da.

**Aralarren ugaitza egonkortzeak zer ekar lezake?**

Gauza horiek ikusmira pixka bat zabalagoarekin begiratu behar dira. Penintsula osoan mendebalderago ez dago beste ugaitz bat Asturiaseraino, Europako mendiak arte. Oso garrantzitsua da ugaitza Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaitik pixka bat hedatzea, noizbait Kantaurialdearen eta Pirinioen arteko lotura naturala egiteko. Bi populazioak lotuta baleude ugaitza, espezie bezala, estrategikoki asko aberastuko litzateke. Ilusio

hori dugu Europako mendiak eta Pirinioak elkartzea.

**Kiriko, Muel... Ugaitzak izenez ezagutzen dituzue?**

Bai. Joera dago izena jartzeko, baina, gehienbat, markatuta daudenean erraza da identifikatzen. Batzuk hala daude eta beste batzuk ez. Beste batzuk jaiotzen diren lekuan hegan egiten dute eta inoiz ez dute gurekin erlaziorik izaten. Markatzeko norbaitek sare batekin hartu behar du eta marka bat jarri hegalean. Markarik ez duena arra da. Eder deitzen diogu. Baina markatu gabeko beste ugaitz bat etorriko balitz ez genuke jakingo zein den zein. Eta egun batean Ederrek alde eginen balu, ez ginatke konturatuko. Markarik ez dute nean identifikatzea oso zaila da. Argazkiekin bai, baina ugaitzek lumak ere aldatzen dituzte.

**Muel eta Ederren txittoa zein izen du?**

Araitz, han jaio baita. Saiatu ginen beste izenen bat pentsatzen, baina, azkenean, Araitzekin geratu da.

**HEGAZTIA EZAGUTZEN**

**Ugaitzak luze bizi dira?**

Bai, bai. Jaio eta 6 edo 7 urteetara sexu heldutasunera iristen dira. Baina ugaitzak 30 urte inguru bizi daitezke. Hortik gora, oso arraroa da. Gure bizi itxaropenarekin alderatuta motza dela dirudi, baina hegazti batendako bada.

**Bizitzeko mendiak malkarrak gus-tatzen zaizkio?**

Bizitzeko babeslekuak behar ditu, pareta luzeak. Eta lurretik pixka bat urrun egon behar dute, lurrean mehatxuak baitaude. Arrautza kabian jarri eta denbora luzez mehatxuei aurre egin behar diete. Edozein ugaitzun haragijalek arrautza edo txito jaio berria jateko aukerarik ez izateko. Orokorrean, hegazti harrapakari guztiek kabiak parretetan dituzte. Ugaitzak beti, bai. Lasaitasun puntu bat behar du. **Pirinio aldetik Aralarra etorri ziren. Zer etortzen dira bikoteak edo banaka?**

Normalean, banaka azaltzen dira. Beraien bizitzan dispersio



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

**GIDARIDUN LEHIO BERRIAK**  
Mugarik gabeko estetika moderna

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



fase bat daukate. Logikoena da Pirinio aldean jaiotzea eta pixka bat heltzen direnean sakabanatzen hasten dira, beste lurralde batzuk bilatzen eta, normalean, banan-banan azaltzen dira. Aralarren, Malloak inguruan azaldu zenetik, esan daiteke banan-banan datozela. Bertan egiten dituzte bikoteak.

### Behin kokatuta, ugatz bikote baten lurraldean beste bikoterik egon daiteke?

Bikote bakoitza saiatzten da bere lurraldean egiten, eremu zabalak dira. Animalia guztiak bezala, kompetentzia egiten diote elkarri. Beraz, ar bat zahartzen ari denean logikoena da beste ar batek bere lekua hartzea. Hemengo honek oso-oso-oso eskualde zabala dauka. Umatzea Malloetan egin du, baina bazka toki ugari ditu: Lizarraldean, Urbasa-Andian, Gipuzkoako Aralarren... Oso-oso etxe handia daukate.

### Zein dieta dute?

Ugatzak hezurretan bereizi egin dira, hezurak irensteko abilitadea dauka. Horien digestioa egiteko gai dira, beste hegazti batzuk egin ezin dutena egiten dute. Putreek eta arrano beltzek haragia jaten dute eta hezurak uzten dituzte. Ugatzak zikloaren azken fasea ixteko gai dira.

### Nahikoa jateko badu?

Abeltzainek hildako azienda botatzeko toki batzuk dituzte, bazkatokiak. Ergoienan bat dago. Ez da bazkatokia, baina Irañeta eta Uhartea Arakil artean hildako abereak botatzeko espazio bat dago. Eta halakoetan jateko zer geratu den ikustera ugatzak azaltzen dira. Horretaz aparte, inguruetako basozainak aparteko bazkatoki bereziak ditugu ugatzendako eta haietan bildots hankak botatzen ditugu astero, 5-10 kilo artean, pixka bat laguntzeko. Horrek leku batean gertzen laguntzen die. Hori da pixka bat animalia honekin egiten dugun kudeaketa.

Beste aldetik, haiendako garrantzitsuena da abeltzaintza estentsiboa egotea, mendian ardiak, ahuntzak... Azienda mendian naturalki hiltzea putreendako, ugatzendako hori onena litzateke. Beti izan da horrela. Horregatik galdetzen didatenean ugatz nola lagundu daitekeen beti erantzuten dut abeltzaintza estentsiboa lagundu behar dela. Hori da garrantzitsuena. Mendiak mantentzeko ere azienda han egotea garrantzitsuena da. Hori



Arbaiuneko markatutako ugatz txittoa. NAFARROAKO GOBERNUA

bai, urte batzuetan izugarrizko gainbehera izan du.

### Ugatzak hezurak jaten dituzte, abeltzainak lasai egon beharko lukete?

Bai. Abeltzainek putreekin askotan liskarrak izaten dituzte behor, behi edo ardiren baterditzerakoan, edo oso ahul dagoenean, putreek hiltzen laguntzen diote, eta jaten. Taldean aritzen dira eta haragia jatera ohituta daude. Ondoren beste animalia batzuk etorriko lirake: ugatzak, beleak... Ekosistema oso zabala dute gure mendiek. Baina ugatzak ez dira horretarako gai, abeltzainekin ez luke inoiz liskar bat izan behar. Azkenean, hezurak besterik ez ditu jaten, azken fasea egiten du. **Sexu heldutasunera heltzean, 6-7 urte, hortik aurrera erreproduzitzen dira?**

Hori da, adin horretan hasten dira bikotekidea bilatzen. Horregatik izaten da normalena, adibidez, Pirinioetan jaio den ugatz bat adin horrekin hemen azaltzea. Bere unea iritsi da eta bere bidea egitera doa. Hortik aurrera urte batzuek saiakerak

## "ARALARRERA BANAN-BANAN ETORRI DIRA. BERTAN EGITEN DITUZTE BIKOTEAK"

egiten dituztenak, eta batzuek lortzen dute bikotekidea izatea, beste batzuek ez. Irunberritik etorritako Kiriku bikotekidea lortu zuen jada adin handia zutenean. Beraz, esan liteke bere heldutasun guztia bakarrik pasa zuela.

### Arrautza asko izaten dituzte?

Normalean urtean bat jartzen dute. Bi jar ditzakete, baina arrotzagoa da. Haien estrategia arrautza bakarra jartzea da. Eta denbora luzez zaintzea. Haien daukaten mehatxuetako bat da oso-oso ugalketa fase luzea daukatela. Ilbeltza aldera jartzen dute arrautza kabian. Ordutik txittoa hegan egin arte pasatzen dira sei edo zazpi hilabete. Txittoa jaio arte 50 egun inguru pasatzen dira. Araitzen kasuan 53 egun pasa ziren arrautza hautsi eta txittoa jaiotzeko. Ondoren beste 140 egun txittoa handitzeko. Denbora tarte horretan guztian arazoak egon daitezke. Oso, oso, oso zaila da ziklo guztia modu onean osatzea.

### Txittoak gurasoekin egoten dira?

Garai honetan ikusi dugu ia beti gurasoekin hegan egiten. Baina negua iristen ari da jada. Logikoena izango litzateke negu honetan gurasoek beste kabi bat egiteko saiakera egitea. Eta hori egin aurretik, kumea pixka bat etxetik bidali behar da. Dagoeneko ikusten ari gara Araitz

bakarrik hegan egiten. Ona izango litzateke hemendik abendura geroz eta gehiago bakarrik egitea bere bere sakabanaketa. Eta, hemendik aurrera, ez dakigu zer gertatuko den, inguruan geratuko den, Gipuzkoa aldera joango den... Naturak bere bidea jarraitu beharko du.

### 2030-31ra arte itxaron beharko dugu bikotekidea opatu duen edo ez jakiteko?

Hori da. Beste batekin elkartu beharko luke hemendik 6 edo 7 urtetara. Eta leku aproposa bilatu beharko lukete, pareta on bat. Eta han beste ugatz bat umartzeko zikloa martxan jartzea. Oso berri ona litzateke ugatzak Sakanan bere zikloa eginen balu. **Ugatzak zer moduzko aldamera da putre, arrano eta beste hegaztien-dako?**

Nik uste dut auzokide ona dela, onegia. Arrano beltza, esaterako, askoz ahaltsuagoa da edo arriskutsuagoa izan daiteke, oso lurraldekoia da. Bizilagun gisa uste dut ugatzak beti azkena dela, beti besteen tarteak hartzen. Putreak

## "UGATZAK HEZURRETAN BEREIZI EGIN DIRA, HEZURRAK IRENSTEO ABILIDADEA DAUKA"

askoz gehiago dira eta egokitzapen oso ona egin dute inguru honetan. Ilarako azkena da. Beno denetik dago, badaude oso markatua dauden beraien eskualdeak. Pirinio aldean, pareta batzuetan, ugatzak estatus pixka bat du. Beste leku batzuetan, berriz, azkena da. Bestalde, pertsonok kirol jarduera anitz egiten ditugu mendian eta gu ere animalia desplazatzeko gai gara eta, horregatik, gure lanaren horri arreta berezia jarri behar izaten diogu.

### Zeri?

Eskalada eta mendi jarduerak dira nabariak. Baina baso lan asko egiten da. Guk argi ibili behar dugu eta ugatzak kabia non jarri duen jakin, baso jarduera horiek mugatzeko. Demagun, umatze garaian, ilbeltzetik aurrera, norbaitek, udal edo partikular batek, pinudi bat bota nahi duela kabitik gertu. Arautu beharko genuke eta zuhaitzik bota gabeko epeak zehaztu beharko lirake, apika udara pasa arte ez litzateke zuhaitzik bota beharko kabitik hurbil. Eskalataileekin gauza bera. Pertsonak ugatzak, sai zuria, arrano beltza edo beste edozein espezie umatzen dagoen paretara igotzen bagara... Hori mugatu behar izaten da, eremu batzuk libre utzi behar dira, urte guztian hegaztien babesleku izateko. Eskalada egiteko ohitura dauden paretetan beharbada eskaladarako epeak mugatu behar ditugu, esaterako, ilbeltzetik agorrilera ezin da eskalatu. Halakoetan, eskalada bideak zigilatu egiten ditugu, eta, azpiko aldean, epe batean eskalada ezin dela egin esanez abisu kartelak jartzen ditugu. Guk ere, espezie gisa, mehatxu bat izan gaitzake

### Iruditzen zait basozainak bazare-tela nolabait arazoak gurasoak.

Bai, esan digute noizbait: "hau zuen semea izan liteke". Sakan-Mendialdea eskualdean basozainen talde handia gaude eta guztion artean ordu asko sartzen ditugu. Ziurrenik astero joaten gara. Eta garaiaren arabera, ia egunero jarraipena egitera. Umatzen dagoenean oso jarraipen handia egin behar diogu. Beraz, bai, urtetan egindako ahalegi-nagatik, bai, seme bat bezala sentitzen dugu, bai.

### Araitzen bikotekidearendako izena prest duzue?

Egin dezala bere bidea eta hautatu dezala bere bikotea, edo hirukotea. Ikus dezatela.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO AZPIRONTZ

## Gu gaurko euskaldunok

Berriki, Kordobilan argitaratzen den egunkarian Javier Andreuk *La mano de Irulegi: del mito a la ciencia* artikulua idatzi du.

Javier Andreu Pintado historiako katedraduna eta Nafarroako Unibertsitateko Arkeologia Diplomaren zuzendaria da.

Sinetsi ezinik ere leitu dut halako ikasketa-titulua eta karguak dituen pertsona batek sortutako testua izateagatik. Haren esanetan eskuaren erabilera sinbolo gisa erromatarrengandik ikasitako erritua eta aldarrikapena izanen omen litzateke (edo feniziarrengandik, edo... eta?). Sorion formak ez omen luke harremanik egungo zorion formarekin (bada, antzekotasun handia, ezta?). Irulegiko idazkiko testuak eta beste antroponimo baskonikoek argi azaltzen omen dute etena dagoela garai bateko baskoniko eta egungo euskararen artean (etena, bai...baina, hango sustraiak izanen ditu egungo euskarak, ez da hala?).

Irulegiko testua latinizazio aurreratuaren adierazlea omen da eta argi utziko omen luke Nafarroa hizkuntza askotako lurraldea zela eta, gainera, euskarak ez omen zuen presentziarik eliteengan (orduan, euskararen hedapen historiko probatua eta erdi arotik dokumentatua den Nafarroako hiru laurdenetako euskal toponimia nola azaltzen ote da?). Inguruabar horretako lekukotasunek argiro azaltzen omen dute baskoniko haiek erromatar izaten ikasi egin zutela (ejem... orduan, gu gaurko nafar euskaldunok, zer ote gara?).

Argi dago zein den Javier Andreuren helburua, hain zuzen ere, Irulegiko eskuak euskaldunongan sortu duen poztasuna eta identifikazio historikoa gutxiesteko eta lohitzeko ahalegina, besterik ez. Egungo euskaldunoi eta euskarari Nafarroan tokikotasuna eta berezkotasuna ukatzeko saiakera. Euskara eta euskaldunon eskubideen aurkako narratiba eraikitzeak asmoa, ideologizatua eta balorazioez bete, zientzia hitzez apaingua. Edozein gauza, baina euskaldunok inolaz ere ez. Andreuren zientifismo petralari jarraikiz, egungo euskaldunok ez gara existitzen. Izan bagara, baina, dirudienez, probarik ez! Zenbait kasutan, pertsona batek titulua eta karguak izanagatik, izaten ahal da leloa. Horixe maila intelektual eskasa! Zorionez, euskaldunok horrelako ergelkerien gainetik gaude! Gu gaurko euskaldunok hitzak baliatuta hasten da Iruñeko Foruen monumentuko idazkuna.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak astearte 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

## HARA ZER DIEN

### Idea suizidak

#### SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Izenak adierazten duen bezala, ideia suizida norberaren bizitzarekin amaitzeko aukeraz behin eta berriz pentsatzeko joera da. Pertsonak ez du bizitzen jarraitu nahi, eta amaitzeko aukera desberdinei buruz pentsatzen du. Ohikoa da horretaz ez hitz egitea, ezkutetzea, ez dute zerbait gaizki dagoen seinalerik erakusten.

Pentsamendu suizidak esperimendatzen dituen edo esperimendatu ditzakeen pertsona batek honako seinale hauek erakuts ditzake:

- Harrapatuta edo etsita sentitzea, edo itxura izatea.
- Min emozional jasanezina sentitzea.

- Indarkeriaz, heriotzaz edo hiltzeaz kezkatuta sentitzea.
- Mendeku, erru edo lotsaz hitz egitea.

- Asaldura edo antsietate maila oso altua sentitzea.
- Nortasun, errutina edo lo ereduak aldatzea.

- Arriskuko jokabideetan parte hartzea.
- Gauzak ordenan jarri eta oparitzea.

- Suzko arma bat edo bizitza bat amai lezaketen substantziak lortzea.

- Besteengandik isolatzea.
- Besteentzako zama izateari buruz hitz egitea.

- Beste batzuei agur esatea, berriro ikusiko ez balitu bezala.

- Jadanik ezin gozatzea atseginak izan ohi ziren jarduerak, hala nola jatea, ariketa fisikoa egitea, interakzio soziala edo

harreman sexualak.

- Damu zorrotza eta autokritika adieraztea.

Adituek honako aholku hauek iradokitzen ditu laguntzeko: lehenik, suizidioan pentsatzen ari den zuzen galdetu; galdetzeak ez du arriskua areagotzen. Bigarrenik, bere buruaz beste egiteko erabil dezakeen edozer gauza kendu eta gertu egon behar du. Entzun eta babestu. Hirugarrenik, laguntza-lerro batera deitza edo laguntza lortzeko jo dezakeen norbaitekin harremanetan jartzera animatzea, Nafarroan Besarkada Elkarte edo Itxaropenaren telefonoa.

Beraz, suizidio arriskuan dagoen norbait ezagutzen baduzu, egin galdera, zaila izan arren: "Suizidioa kontuan hartzen ari zara?" eta laguntza eskatu.

## GUTUNA

### Nei

#### AITOR HERNIAZ ORMAETXEA

Nire herriak, Lakuntzak, baditu aberastasun ezberdinak. Badu industriagune garatu bat, herritarrei lana bermatzen diena.

Eskura du, halaber, natura, basoa, oihana, herriari arnasa ematen diona, etxeak berotzeko egurra ematen diona eta isiltasunaz gozatzeko aukera ematen diona.

Lakuntzak badu musika eskola, dantza taldea, futbol taldea, mendi elkarte... herri bizia da Lakuntza.

Horrek denak hainbat eta hainbat bizilagun berri ekarri izan ditu beti Lakuntzara. Bizi hobea baten bila etorri direnak asko izan dira hamarkadetan. Espainiatik,

Hego Amerikatik eta azken aldiran Afrikatik ere bai. Eta bertatik, Afrikako herrialde batetik etorri ziren behin Lakuntzara Nei eta haren familia.

Nei 8 urteko neskatxa beltza da. Azala iluna du, irribarre zabal eta distiratsua eta begi handiak, ilargi beteko gau argitsu baten antza hartzen dute zuri begira daudenean. Altua da Nei. Hanka luzeak eta gorputz liraina ditu, telebistan maratoia egiten aritzen diren emakume argal eta gihartsu horien antz ikaragarria du Neik.

Arima gardena dauka Neik, zoriontsu dela ikusten da; polita da Nei bizikletan, laisterkan edo patinetan ikustea, haren begirada argiarekin begira beti. Nire alabak uda erdia eman du harekin jolasten. Gozamina da aurreiritzirik gabe Neirekin

nola konektatu zuen ikustea eta ederra elkarrekin euskaraz ari direnean.

Euskara gutxitan aditu daiteke Afrika erdialdeko azentu bereziarekin, eta Lakuntzak hori ere irabazi du. Erroka handia da euskara baliogarri izanen zaiela ikustaraztea eta sinetsaraztea. Gaztelera nagusi da herrian oraindik; euskara, "auskia", bere lekua berreskuratuz badoa ere, ez da erraza jendea gurera ekartzea, baina nork esanen zidan niri duela 20 urte afrikar jatorrizko lakuntzar euskaldunok izanen zirela herrian barna?

Irabazle atera da Lakuntza. Herriari kolorea ematen dio eta ziur naiz epe ez oso luzean aberastasuna ekarriko diola, herriak duen altxorrari, euskarari alegia, doinu eta soinu berriak emanez.


[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

#### Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
619 821 436  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

#### Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

#### LAGUNTZAILEAK



**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
[erredakzioa@guaixe.eus](mailto:erredakzioa@guaixe.eus)

**Erredakzioa:**  
Maidor Betelu Ganboa  
[kiriolak@guaixe.eus](mailto:kiriolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

**Irratia:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
[irratia@guaixe.eus](mailto:irratia@guaixe.eus)  
948 567 074

**Publizitatea:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)  
661 523 245

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

**ARGITARATZAILA:**  
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

## GUTUNA

**Gero eta aldeko,...**  
**Lehentasunak**  
**birpentsatzea,**  
**Erriberari begira****CRISTINA OSES ZUDAIRE**

SOZIOLOGOA

Nafarroako datu soziolinguistikoek agerian uzten dute, beste behin ere, zerbaitek huts egiten duela euskararen sustapenari eta biziberritzeari dagokionez, eta horrek geldialdi eztabaida ezina islatzen du. Horien irakurketa laua egiten badugu, arazoa nabaria da: Erribera. Baina, Erriberako kontu bat besterik ez da? Egia esan, eremu honetan etengabe aipatzen den errealtatea hizkuntzarekiko axolagabetasuna edo arbuioa dagoen gainerako espazioetara ere estrapola daiteke. Gai hori erakundeen babesgabetasunak zeharkatzen du, baina baita euskal komunitatearen trinkotze-praktikak ere.

Komunitatea trinkotzea edo hezkuntza, kultura edo aisialdia bezalako eremuetan euskara hutsez funtzionatzen duten guneak eraikitzea izan da komunitate euskaldunari bere hizkuntza blindatzeko, euskaraz bizitzeko eta



nortasun politiko eta kulturala eraikitzeak aukera eman dion formula. hala ere, muga zabalak ditu bere sustapena errazteko eta hizkuntzarekin inolako harremanik ez duten pertsonak sentsibilizatzeko orduan.

Erriberari erreparatzen badiogu, lehenik eta behin, hizkuntza bat ikastea norbanako bakoitzaren erabakia delako. eta horrek talka egiten du euskal

mugimenduaren kultura politikoarekin, kolektiboan oinarrituta mobilizatzeko eta antolatze potentziala duten espazioak eraikitzea lortu baitu. Bigarrenik, aurre suposatzen duelako euskarak bizi duen babesgabetasuna lehentasun politiko dela mundu guztiarentzat Nafarroan. Baina, batez ere, herri, eskola eta kultur eta aisialdi gune gehienek tamainak, eta baita inguru horretako gaur egungo euskaradunen kopuruak ere, euskara hutsez mintzatzen diren guneen garapena eragozten duelako. Baita, herritar gehienak ez direlako inoiz hizkuntzarekin bizi izan eta etxea teitlatutik hastearena ez delako interesgarriena.

Hizkuntzari ezarritako mugak biderkatu egiten dira Erribera bezalako testuinguruetan; izan ere, eremu mistoetan ez bezala, gu egunero bizi gara hizkuntza eta haren sustapena baztertzen dutenen erreazioarekin. Eskola, aisia, kultura, tabernak eta, gehienetan, kuadrillak partekatzen ditugu. Beraz, soilik euskaldunak diren espazioen zergatia azaldu eta

horien existentzia aldarrikatu behar izatea, aurrez kulturaren eta hizkuntzaren ezagutzara apur bat hurbiltzen duten praktikak sustatu gabe, nekagarria da bertako euskaltzaleentzat eta ez oso praktikoa hizkuntzaren aurrerapenean. Baina, aldi berean, zer den elkarbizitza, euskararen edozein aurrerapausoa gaitzesten dutenekin, azaldu behar izatea ere nekagarria da.

Orduan, zer?

Epe luzerako datuetan aldaketa eragingo duten proposamenak egiteko orduan, baliteke aurrerapen azkarragoa egiteko aukera Erriberako euskaltzaleen behar eta lan politikoari

erabat lotutako komunitate euskaldun batean egotea. Erribera euskaltzaleago batek Nafarroako euskaldun komunitate osoaren hizkuntza eskubideak zabaltzea ekar dezake. Erriberako mugimendu euskaltzaleak praktikan eta antolatze gaitasunean aberatsa den nafar komunitate euskaldunaren esperientzia politikoa behar du, helburu argi batekin: gaitzespenen kokatu diren horiek, euskararekin bizitzea beste erremediorik ez dutela barneratu ditzaten.

Eta zuk, euskaldun gisa Zer ekarpen egingo duzu eremu ez-euskaldunetan euskara biziberritzeko prozesuan?

## OBJEKTIBOTIK

**iñaki lizarraga**  
@Inakili

Azken egun hauetan pilatu diren litro kopurua estazio desberdinetan. Adierazgarria Ultzama aldea, Arakil-Imotz-Larraun eta Andiamendi inguruan pilatutakoa. Ameskoa eta Burundan izan ziren 100l gora jasotakoak ere.

Iturria: Meteonafarroa, hainbat afizionatuen estazioak ecowit...

**IRAILAK 30 - URRIAK 4****10:00** Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta**10:15** Pentsaren azalak**10:20** Albisteak eta kirolak**10:30** Hizketan**11:05** Solasaldia Karrape eta Aralar irrátiekin**14:00** Errepikapena**Hizketan**

Irailak 30 Ibai Etxabari Oroz, ugatzaz

Urriak 1 Aizaga Zeberio Petriati eta Amaia Abudicce Aylagas Altsasuko emakumeen ahalduntze programaz

Urriak 2 Bertsoa.eus + "Makarriketak" podcasta

Urriak 3 Kattalin Armendariz Irastorza, Elkar Mugi jaialdiko balorazioa eta Josune Azpiroz Imaz, Biak Bat bekez

Urriak 4 Agenda berezia





Oumaima erdian, Rafael Arteta Ballarin eta Aicha Mogane lankideekin.

# "Txikitan nire nahasketak egiten aritzen nintzen"

**OUMAIMA OGD** ARKANGOA TABERNAKO SUKALDARIA

Gastronomika Talent Nafarroa lehiaketan Pintxo Barra Onenaren kategorian finalista izan da altsasuarra

**Alfredo Alvaro Igoa** ALTSASU

Nafarroako Gobernuako Turismo Zuzendaritza Nagusiak antolatutako lehiaketa da Gastronomika Talent Nafarroa. Bere helburua da 40 urtetik azpiko gastronomiako profesionalen talentua aitortzea. Arloko profesionalen osatutako epaimahai batek hamaika kategorietan sarituak zein izan ziren erabaki zuen. Sari banaketa irailaren 17an egin zen eta han izan ziren Arkangoa tabernako hiru sukaldarietatik bi: Rafael Arteta Ballarin eta Oumaima Ogd. Aicha Mogane osatzen du hirukoia. Maila horretako saria Iruñeko Ultzama tabernako Isaac Alvarezek eta Jaizkibel Zunzarrenek eskuratu zuten, baina finalista izate hutsarekin pozik zegoen sukaldari taldea.

**Pintxo barra onenaren sariko finalista. Zorionak.** Eskerrik asko.

**Nola egin zenuen lehiaketan parte hartzeko?**

Gastronomia kritikariek urtean zehar jarraipena egiten dute. Aukeraketa bat egiten dute eta baheketaren ondoren hiru finalista aukeratzen dituzte. Hirurak sari banaketara gonbidatu gin-

tuzten. Ongi etorri auzatea izan zen, ondoren bazkaria eta, azkenik, sari banaketa izan zen.

**Urte guztiko lana aitortuta, zer sentitzen duzu?**

Oso pozik nago, bai.

**Zer sentitu zenuen sari banaketarako gonbidapena jasotzean?**

Festen aurretik jakinarazi ziguten. Festak prestatzeko lan handia genuen eta ezin izan genuen sari banaketan pentsatu.

**Sukaldari ugari elkartuko zineten. Zer moduz sari banaketan?**

Jende pila zegoen, ospetsuak, sukaldarionak... Rafakezagutzen zituenekin hitz egin genuen. Han elkartutako guztiak sukaldaritzaz aritu ginen hizketan. Pintxoak dastatu eta haietaz hitz egiten... Guztia ederki ateraz zen. Gustura egon ginen, eta jaten oso ongi eman ziguten. Kafearen ondoren egin zuten sari banaketa, eta maila bakoitzeko sarituak ateraz ziren jendaurrera.

**Nola bueltatu zinen handik?**

Pozik. Egun desberdina izan zen. Beste pertsona batzuk ezagutu nituen, beste sukaldari batzuk. Hori ona da. Gainera, Nafarroako hiru pintxo barra onenen artean gaude.

**Sukaldaritzarekin lotutako zure lehen oroitzapena zein da?**

Ama eta izebarekin ikasi nuen. Sukaldari onak dira. Arabiar sukaldaritzaren oinarria erakutsi zidana izeba izan zen. Txiki-txikitatik asko gustatu izan zait sukaldaritza. Txikia nintzela nire nahasketak egiten aritzen nintzen: "olioa beste honekin ea zer ateratzen den". Haiekin eguneroko jakiak prestatzen ikasi nuen. Jakina, ostiraletan kus-kusa barazkiekin, haragiarekin... Aparte, pastak.

**Non ikasi zenuen arabiar sukaldaritza?**

Marokon. Bertan zazpi urte besterik ez daramatzat. Eta sukaldaritza gustatzen zitzaidanez, sukaldari lana bilatu nuen.

**Eta bertako sukaldaritza non ikasi zenuen?**

Arkangoan, Rafak eta Aichak erakutsi didate. Irakasle onak

**"SUKALDARITZA GUSTATZEN ZITZAIKIDANEZ, SUKALDARI LANA BILATU NUEN"**

eta majoak dira. Lau-bat urte daramatzat hemen lanean.

**Sukaldean bazenekien, baina produktuak eta egikerak aldatzen dira.**

Guztia aldatzen da, arabiar sukaldaritza ez da hemengo bezalakoa. Egiten dudak guztia Arkangoan ikasi dut. Hasieran kostatu zitzaidan, ez bainekien gauzak nola egosi, frijitu edo egiten ziren. Gainera, hizkuntza ere ez nekien. Pixkanaka, begiekin. Zuzentzen zidaten. Pazientziarekin... Rafak eta Aichak izugarri lagundu ninduten. Nire sukaldaritza irakasleak dira. Biei, eskerrik asko!

**Telebistako sukaldaritza saioak ikusten dituzu?**

Ez asko. Batzuetan ikusten ditut. Arreta pizten didate eta ikusten dut, baina gutxitan. Ez beti. Ez dut saiorik jarraitzen. Nahiago dut Arkangoan aritu, irakasle onak ditut.

**Pintxoengatik jaso duzu aipamena. Zer dira zuretzako pintxoak?**

Hasieran harritu ninduen mokadu txikiak prestatu behar izatea. Aukera zabala dago eta horrela norberak gogoko duen zaporea dastatzeko aukera du. Ez da bazkari edo afari baten modukoa. Gustura aritzen naiz pintxoak egiten. Arkangoan egiten den guztia hirurok talde lanean egiten dugu. Goizean pintxoak egiten ditugu eta, ondoren, jatetxeko lana heldu da.

**Baterako eta besterako produktu askorekin lan egiten duzue. Gogokoren bat?**

Rafari zizak asko gustatzen zaizkio eta beti ari da haiei buruz hitz egiten. Niri ere zizek arreta pizten didate, eta jakin nahi izaten dut ziza bakoitza zein garaiakoa den, nola landu daitekeen eta abar. Rafari bezala, niri ere asko gustatzen zaizkit zizak.

**Sukaldari erreferenterik baduzu?**

Ez naiz bakar batekin gelditzeko. Egunero sukaldari desberdin bat ikusi, ideiak hartzeko.

**Trebatzeko aukera hartzen duzu?**

Sukaldaritzan zaila da dena ikastea, produktu eta gauza pila dira. Pixkanaka, egun guztiak bueltaka. Hemen egunero zerbait ikasten ari naiz.

**Sukaldariak noiz jasotzen duzue esker ona?**

Platerak nola bueltatzen diren ikusten dugu. Garbi bueltatzen bada, jendeari gustatu zaionaren seinale, zegoen bezala badator, akatsen bat dago. Eta zerbitzariak ere galdetzen diegu. Haiei ere eskerrak.

## Biak Batek bere lehen bekak banatu ditu

Behar bereziak dituzten haur eta gazteei zuzendutako programarako dira

**A. A. I. ALTSASU**

Aspaldiko ametsa betez, Biak Bat elkarteak estreinakoz bekak eman zituen joan zen ostiralean. Ekitaldia familiei eta enpresa babesleei "emandako konfiantza eskertzeko" modua izan zen. Halaxe azaldu du elkarteak Josune Azpiroz Imazek. Nabarmendu duenez, "gu irabazi asmorik gabeko elkarte gara. Gure helburua da geroz eta jende gehiagorengana iristea gure esku hartze espezializatu horiek. Batez ere, sozioekonomia egoera zailen dauden pertsonengana heltzea. Behar bereziak dituzten haur eta nerabeak dituzte, eta, aparte, beste egoera zail batzuk. Dirua ez izatea beste traba bat. Guk gure aletxoak jarri nahi dugu. Behintzat hiruhileko batean gurera etorri eta onura batzuk jasoraditzakete, helburua beteta".

Deialdira hamazazpi eskaera aurkeztu ziren. Azpirozek argitu duenez, "gehienak gurekin ari diren familia batzuk dira, beste batzuk ez". Gaineratu duenez, "bekak banatzerakoan landa eremuan bizi zirenek puntu gehiago lortzeko aukera zuten". Beka jaso dutenetatik bi sakan-darrak dira, eta iruindar eta gasteiztar banak ere jaso dute. Helburua betetzeko, babesleak bilatu zituen Biak Bat elkarteak eta hiru enpresaren laguntza izan dute: Breedna (animalien-dako pentsuak), Does SM (erakuntza enpresa) eta Itarua (merkataritza gunea). Horiei Biak Bat elkarteak crowdfunding bidez lortutako diruarekin eskainitako beka gehitu behar zaio. Aurreneko hirurak hiru hileko bateko gastuak ordainduko dituzte, atzenak, berriz, hiruhileko baten prezioaren erdia pagatzeko balioko du. Bigarren deialdian lanean ari da elkarteak dagoeneko: "helburua da Sakanako enpresak ere parte hartzea". Lau beka eman nahiko lukete.

ekarri zuk ere argindar  
faktura goienerera



berriztagarria

bertakoa



euskalduna


kooperatiboa



**goiener**



 Kale Berria 111. Iruñea  
 Mallutz kalea 18. Ordizia

 [goiener@goiener.eus](mailto:goiener@goiener.eus)  
 [www.goiener.eus](http://www.goiener.eus)

948 504 135  
900 816 365



Amaia Abucide Aylagas eta Aizaga Zeberio Petriati Altsasuko Udaleko berdintasun zinegotzia eta teknikaria.

# "Ahalduntzea norberak egin beharreko prozesua da"

**AIZAGA ETA AMAIA** ALTSASUKO UDALEKO BERDINTASUN TEKNIKARIA ETA ZINEGOTZIA Altsasuko Udaleko Berdintasun Arloak Emai, Altsasuko Emakumeen Ahalduntzerako Gunea programa aurkeztu zuen asteazkenean

**Alfredo Alvaro Igoa** ALTSASU

Programak prestakuntza eta gaitze feminista du ardatz, parte hartzaileek baliabideak eskuratzeko. Elkarteguneak, konfiantzako giroan, emakume anitzen arteko harremanak eta sareak sortu nahi ditu, emakumezkoak norbanako gisa eta elkarrekin ahalduntzeko.

**Emakumezkoen ahalduntzeaz ari garenean, zertaz ari gara?**

**Aizaga.** Zaila da emakumezkoen ahalduntzeaz definizioa bakar bat ematea. Nolabait emakumez-

koak gure buruaren eta gure bizitzaren jabe garenaren kontzientzia eta dauzkagun eskubi-deen kontzientzia hartzeko prozesu bat izango litzateke. Besteak beste. Egiturazko genero desberdintasunak daude gi-

**"GURE BURU, BIZI ETA ESKUBIDEEN KONTZIENTZIA HARTZEKO PROZESUA DA AHALDUNTZEA"**

zartean. Emakumezkoek, oro har, objektu edo bigarren maila bat ematen zaio jendarteko hainbat alorretan. Ahalduntzea izan litzateke prozesu bat zeinetan objektu posizio horretatik subjektu izateko bidea egiten laguntzen digun.

**Amaia.** Aizagak aipatu bezala, emakumezkoak beste puntu batetik hasten gara. Hortaz, gure hiritartasuna modu oso batean garatu ahal izatea.

**Geroz, Altsasun ere emakumezkoek ahalduntzeko premia dute.**

**Ai.** Sistema honen parte garen neurrian, emakumezko guztiok, gehiago edo gutxiago, behar hori daukagu, abiapuntua desberdina delako.

**Zer onura dakar rol pasibo izatetik ahalduntzera pasatzeko?**

**Am.** Azken batean, gizartearen parte izatea eta gizartearen parte hartzailea izatea. Emakumezkoak bigarren plano horretan egotearen ondorioa izan da ez egotea eta parte hartzerik ez edukitzea. Esaterako, herrietan garatzen diren ekintzetan begira egotea. Oso adierazgarria izaten da kontzertuetan edo plazetan izaten diren ekintzetan: askotan ikusle gisa geratzen dira. Hor aktibo izatea plaza erdian egotea izango litzateke. Hori gure bizitzetan eremu guztietara eramanda: kantuan, dantzan, gure lanean ardura postu bat hartzeko edo edozein gauzatan.

**Udalak zergatik sustatzen du?**

**Ai.** Gaur egun indarrean dauden legeek, besteak beste, udalak behartzen gaituzte estrategia martxan jartzera. Kasu honetan udalak daukan zeregina da emakumezkoek beraien ahalduntze prozesuetan eragiteko eta aurrerapausoak emateko tresnak eta baliabideak eskaintzea.

**Nola ahalduntzen da emakumezko bat?**

**Ai.** Norberak egin beharreko prozesu pertsonal bat da. Prozesua joan-etorri askokoa izan daiteke. Egia da inork ezin dela beste norbait ahaldundu bere horretan. Aldi berean, ulertzen dugu modu kolektiboan ere egin behar dugun zerbait dela. Prozesu pertsonala izateak ez du esan nahi kolektibotasun izaera hori ez daukanik.

**Inguruan ahalduntze sistema bat sortzen denean, ahalduntzeak gora egin eta kolektiboagoa da?**

**Am.** Hori da. Askotan esaten den moduan, bakarrik eta indibidualtasun horretatik gauzak aldatzea oso zaila da. Baina kolektiboan eta elkarrekin, eta batez ere Altsasu mailako sareak sortzen eta emakumezkoen arteko harremanak indartuz gauzak lortu daitezke. Eta helburu horretan baliabideak jartzea da daukagun lana.

**"EMAKUMEAK ATZEKO PLANOAN EGOTEAREN ONDORIOA IZAN DA EZ EGOTEA ETA PARTE HARTZERIK EZ IZATEA"**

**Ahalduntzeko ereduak edo ispiluak behar izaten dira?**

**Ai.** Ahalduntzetan eragiteko ereduak eta erreferentziak funtsezkoak dira. Baina behar ditugu ere gaitasunak eskuratzeko, trebatzea eta informatzea. Ahalduntzeko modu bakar bat ez dago. Esaterako, gaur egungo jendarte digital honetan ez baldin bada ordenagailuak eta teknologia berriak erabiltzeko gai ez izatea. Emakumezkoen eta gizonezkoen arrakala digitala dagoela diote datuek. Esate baterako, beharbada bide bat izanen da emakumezkoen gaitasun digitalak garatzeko ikastaroak antolatzea. Ahalduntzea modu askotara egin daiteke. Eta modu kolektiboan, beharbada gure egunerokoan gertatzen zaizkigun gauzen inguruan hitz egin da ahaldundu gaitzeko. Pentsa dezakezulako daukagun arazo hori zuri gertatzen zaizun zerbait dela, baina beste emakume batzuekin hitz egiten hasi eta ikusten duzu besteek ere gertatu zaiela, eta antzeko bizipenak dituztela. Gertatzen ari zaizun hori politizatzen duzu. Nahiz eta zuri norbanako gisa eragiten dizun, beste emakume batzuek egoera horretan edo antzekoetan egon daitezkeenez, horrek ere bulkatzen zaitu aurrera jarraitzea. Beste modu batera bizi duzu zuk ere gertatzen ari zaizun hori.

**Bizitzaren esparru guztietan?**

**Ai.** Bai. Beharbada eremu batzuetan oso ahaldunduta senti gaitzeko eta beste eremu batzuetan ez hainbeste. Talde feminista batean parte hartzen duten emakumezkoak talde horretan beharbada oso ahaldunduta senti daitezke, konfiantzazko espazioa delako, edo dena delakoa. Baina laneko bilera batean zeinetan nagusiki gizonezkoek parte hartzen duten, eta egoera batzuetan arrotza zaigun emakumezkoek, momentu horretan ez gara ahaldunduta sentitzen, egoera ez delako hain eroso.

**Altsasuko populazioaren erdia dira emakumezkoak, profil ugari daude.**

**Hori kontuan hartuko zenuten, ezta?**

**Am.** Bai, etengabe. Emakumezkoek, subjektu bezala, oso anitzak gara. Eta aniztasun hori kontuan ez hartzea gure kontra joatea izango litzateke. Eta errealitate horien ezaugarri guztiak ere kontuan hartu behar dira. Horrelako proposamenak egiten ditugunean saiatzen gara ahal dugun errealitate desberdin gehien kontuan hartzen.



## Emai, Altsasuko Emakumeen Ahaldunderako Gunearekin zer bilatzen duzue?

**Ai.** Esan bezala ahaldunderaren landu behar dugun estrategia bat da. Altsasuko Udalaren II. Berdintasun Plana ebaluatu gure ondo ondorio nagusietako bat izan zen ahaldundera ez zela nahi beste jorratu. Hirugarren planean gure lehentasunetako bat izanda ahaldunderaren lanildoari lehentasunez heltzea. Emakumeen ahaldundera bideratutako ikastaro batzuk antolatu ziren, baina ez zeukaten marko orokorrik. Pandemiak programa bat bertan behera uztea ekarri zuen. Beraz, hemendik aurrera udalategi emakumezkoen ahaldunderari, beraien partaidetza soziopolitiko indartzeari eta abarri begira antolatuko diren jarduerak marko beraren pean antolatzea.

## Helburu gehiago ditu?

**Am.** Azken batean elkargune izango da. Hor ere harremanak sortzea, herriko emakumeak saretzea edo haietako espazio bat izatea gustatuko litzaiguke. **Ai.** Prestakuntza feministak ere garrantzia izango du. Ahaldundera gure horrek hainbat printzipio ditu eta feminismoa haietako bat izanen da. Prestakuntzari, gaitzeari, emakumezkoen tresnak emateari garrantzia emanen diogu. Beraien hausnarketak egin ditzaten, beraien gaitasunak gara ditzaten.

## Nola mamituko da gunea?

**Ai.** Orain abiatu dugun proiektu bat da, bidean ikusten joanen gara. Esan behar dugu dagoeneko programa batzuk martxan jarri ditugula eta, pixkanaka, doazela bide bat egiten. Egia da formula magikorik ez dagoela. Guretako garrantzitsua izango da emakumezkoek beraiek eta mugimendu feministak egiten dizkiguten ekarpenak eta proposamenak. Guk ahal dugun neurrian horiei ahalik eta modurik egokienean erantzuteko. Joango gara denen artean bidea egiten. **Udazkena-negua eta udaberria-uda sasoiak dituzue, zergatik?**

**Ai.** Pentsatu gure urtean behin gutxi litzatekeela. Horrela urtean bitan helburu horietara bidera-

## "INDIBIDUALTASUNETIK GAUZAK ALDATZEA OSO ZAILA DA. BAINA ELKARREKIN GAUZAK LOR DAITEZKE"

tutako ikastaroak antolatzea bermatzen dugu. Eta bi baino gehiago ezta ere, bestela jarduerak antolatzea mugatuko ginatekeelako. Hori ere ez da bakarrik gure lana. Altsasun urtetan indarrean den lege aholkularitza hemen sartu dugu, eta hori urte osoan egonen da indarrean.

## Zer duzue prest sasoi honetarako?

**Ai.** Esan bezala, zerbitzu batzuk egonkorak dira: lege aholkularitza, Elkar zaintzen duten emakumezkoak programa eta feminismoa irakurgai programa.

**Am.** Oraingoak dira ongi zaintzen eta maitatzen ikastea tailerra. Geure burua eta beste batzuk nola zaintzen ditugun hausnartuko da eta, besteak beste, norberaren burua zaintzeko tresnak eskainiko dira hiru orduko hiru saiotan. Beste tailerra klimariotik menopausiara, teoriatik gorputzera da. Bien arteko berdintasunak ezagutzeko aukera izanen da bi orduko bi saiotan. Bi tailerrak gaztelaniaz dira.

## Interesa duenak izena eman behar du?

**Ai.** Emateko epea lastailaren 11ra arte dago. Horretarako, *berdintasuna@altsasu.net* posta elektronikora mezua idatzi, 948 564 823 edo 628 328 593 telefonoz hots egin, edo bertara etorrita eman daiteke izena.

## Emakumeen ahaldunderako gunea nola prestatu duzue?

**Ai.** Hasierako zirriborro bat egin genuen berdintasun arloan eta mugimendu feministari geneukan planteamendua aurkeztu genion. Haien ekarpenekin aberastu eta proposamena osatu dugu.

## Zergatik Emai izena?

**Ai.** Izena pentsatzen ari ginela emai opatu genuen; euskaraz oparia esan nahi duena. Gainera, fonetikoki ere emakume hitzarekin antzekotasuna du. Eta bitxikeria bat: Nigeriako Edo izeneko tribuan erabiltzen duten hitza da eta indarra eta ausardia esanahi du.

**Am.** Egokia iruditu zitzaigun. Bere adierekin biltzen du azalera nahi genuena.

## Aurreikuspenak?

**Ai.** Aipatu ditugun bi ikastaro horietan izena emateak ea nola doazen. Ahalik eta gehien zabaltea nahi dugu, ea zer harrera daukan. Ikusiko dugu herritarren artean zer harrera izaten duen. Bidea egiten joango gara.

**Am.** Azken batean, jendearekin parte hartzea, elkartzeta eta haiekin lan egitea da. Haiek gabe ezer gutxi egin ahaliko genuke.

# Sunsundeguiko ERTearen negoziazioa hastear da

Aldeak astelehenean elkartuko dira, beraz, espedienteak ez da lastailarekin batera indarrean sartuko. Hiru hilabeterako izanen da. Bitartean enpresa birfinantziatzea lotzen eta inbertitzailea bilatzen segitzen du

## Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Sunsundeguiko zuzendaritza eta enpresa batzordea aldi baterako enplegu erregulazioko espediente negoziatzen astelehenean hasiko dira. Prozesuan aldeak gutxienez hiru bilera egin behar dituzte. Ekonomia arrazoiengatik aurkeztutako espedienteak denez, eta enpresak "dirurik ez dagoela" dioenez, langileen ordezkariak ez dute argi negoziatzean onuraren bat lortzeko aukerarik izanen duten. Agiriak eskutan izan arte itxaron nahi dute euren aldarrikapenak zehazteko. Baina haietako bat izanen da langileek irailako soldata kobratzea. Ez dute urte akaberako extra galdu nahi, ezta espedienteak oporretan eraginik izatea. Aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteak indarrean sartzean langileek SEPEtik jasoko dute soldata, dutenaren %70. Negoziazio aldiaren sindikatuek eskatuko dute enpresak soldata horiek handitzeko diru kopuru bat jartzea.

Bitartean enpresaren helburua da 25 bat autobus bukatzea eta haien salmentarekin diru pixka bat eskuratzea. Bi bat astetan egin nahi dituzte, baina horiek egiteko langile gutxi batzuk ariko dira lanean. Materiala ere horiek bukatzeko justu dute. Ekoizpen lerroa gelditu dago material faltagatik.

Egoerak Sunsundeguiko 400 langileengan "urduritasuna eta ziurgabetasuna" sortu ditu. Hainbaten artean kezka da espedienteak bukatu ondoren langile asko kaleratuko dituztela. Oinarria duen kezka da, batetik, antzeko egoera baten ondoren kaleratzeak izan zirelako. Eta, bestetik, KPMG aholkularitzak esan baitu egungo ekoizpeneko langile gehiegi daudela. Volvoren goi mailako autobusen proiektuagatik 150 langile inguru sartu ziren joan zen urtean. "Inbertitzailea etortzen bada,



Langileak aspaldi zeuden enpresaren martxarekin kezkatuta. ARTXIBOA

ea zer baldintzatan datorren", adierazi du langile batek.

Bitartean egoerak Sunsundeguiren hornitzaile diren enpresak jo ditu ere. Batek bere 40 langileei aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak ezarri die. Enpresa horietan galdetuta, egoerarekin kezkatuta daudela adierazi dute. Egoerak "itxura txarra" duela uste dute. Diru sarrerarik gabe, "gastu pila ditugu eta zorrak berehala egiten dira. Ez dakit eutsiko diogun berriro hasteko" esan digute enpresa batean. Guztiei Sunsunde-

guik dirutza zor die. Haietako batzuk oraindik gogoan dute 2011n gertatutakoa: "Sunsundeguri zor zigunaren zati handi bat barkatu behar izan genion lanean segi ahal izateko". Aitoritu dutenez, "lanarekin beti gorabeherak izan ditugu, urte bat erabat ona, sekula. Beti bazen zerbait". Gaineratu dutenez, "kobratzeko beti arazoak izan ditugu". Etorriko denaren zain daudela, enpresa hornitzaileek ez dute ulertzen nola utzi dioten Sunsundeguri 50 milioi euroko zorra pilatzen.



**PORTUKO**  
 Altsasu:  
 948 563 822 (denda)  
 948 467 153 (lantegia)  
 Ebarri Aranatz:  
 948 460 988



Haurrek tailerlean egindakoak bilkuran baliatu zituzten. UTZITAKOIA

## Ihebardarrek Palestinako ospitale bat lagundu dute

Elkartasun egunean ateratako dirua hara bideratuko dute. Genozidioa gelditzeko exijitu zuten

IHABAR / ALTSASU / SAKANA

Palestinarekiko elkartasun eguna ospatu zuten Ihabarren larunbatean. Pintxo-potearekin, ihebardarrek emandako produktuekin osatutako hiru zareren zozketarekin eta herri bazkariarekin 1.500 euro lortu zituzten. Yala Nafarroa Palestinarekin ekimeneko kideek emandako aukeren artean dirua Palestinako ospitale batera bideratzea erabaki zuten. Ekimeneko kideak aurretik hitzaldia eman zuten, haurrendako tailerra egiten zen bitartean. Bilkuraren ondoren, herritarrek emandakoarekin

pintxo-potea izan zen eta antzera egindako bazkariak 70 herritar elkartu zituzten. Ondoren, Ihabarko fanfarrea aritu zen.

Bestalde, Su-etenaren Aldeko Nafarroako Osasun Langileak deituta, Altsasuko osasun etxearen parean kontzentrazioa egin zen atzo. Palestinatik sustatutako Isaraelekiko Boikot, Desinbertsioa eta Zigorrak kanpainarekin bat eginez, antolatzaileek Teva eta Ratiopharm botika enpresetako produkturik ez erosteko deialdia egin zuten "Palestinaren okupazioari eta genozidioari laguntzen diolako".

## DUELA 25 URTE...



## Iturgain elkartearen eguna

Arbazarrek herriko elkartearen eguna ospatu zuten irailaren 25ean. Goizean hildako bazkideen eta orduko kideen aldeko meza izan zen. Arratsaldean festetan jokaterik izan ez zen eskuz binakako pilota finala jokatu zuten. Pirrikela eta zopa txapelketaz aparte, ohikoa zen futbol partida ere jokatu zuten elkartekideek. Gauean egindako afaria eta dantzaldiarekin despeditu zuten Iturgain elkartearen eguna.

# Argudioz kargatutako manifestazio deialdia

Pentsio duinak aldarrikatzearekin batera, Sakanako pentsiodunen mugimenduak deitutako manifestazioan osasun sistemarengatik kezka adieraziko dute. Baita energia pobrezia, erosketaren garestitzea edo etxebizitzaren arazoagatik ere

ALTSASU

Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna da lastailaren 1a, asteartea. Hori dela eta, Sakanako pentsiodunen mugimenduak manifestazioa deituz bere aldarrikapenak eta hainbat gairen inguruko hausnarketak kalera atera nahi izan ditu. Aurreneko kezka Osasunbidearekin dute. "Inbertsiorik ez egiteak, mediku faltaz aparte, itxarote zerranda luzeak dakartza, bai osasun etxetako lehen arretan, bai espezialisten kontsultetan. Gehien adinekooi eragiten digunez, premiazko konponbideak eskatzen ditugu". Mugimenduko kideek exijitu dute "etxez etxeko arreta zerbitzu publiko eta kalitatezkoa" bermatzea. Arlo horretan lan egiten duten langileendako lan hitzarmena eta lan baldintza duinak eskatzearekin batera.

Bestalde, mutualitateen garaian pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan gehiegizko atxikipenak egin zituzten administrazioak. "Estatuko beste puntutan dagoeneko errenta aitortpenen desgrabazioak eginez itzultetak egiten ari dira, baina ez dugu ulertzen Nafarroan zergatik ez den gauza bera egiten". Hori "ahalik eta azkarren" zuzentzeko exijitu diote Nafarroako Gobernari eta Nafarroako Parlamentuan ordezkatuta dauden taldeei.

Sakanako pentsiodunen mugimendua duela sei urte eta erdi atera zen kalera pentsio duinak eskatzera. Haien balioa handitzea eta gutxieneko pentsioen kopurua handitzea ere manifestazioan hutsik eginen ez duten aldarrikapenak dira. "Horrek genero arrakala desagerrarazten lagunduko duelako". Estatuari zuzendutako eskaera horiekin batera, Nafarroako Gobernari eskatu diote "beste baliabiderik ez duten pertsonen gutxieneko pentsioa hobetzeko 2025erako, gutxieneko pentsioa 15.120 eurora arte osatzeko beharrezko formulak az-



Mugimenduak manifestaziorako deialdia asteleheneko bilkuran egin zuen.

## ZERGA ERREFORMA ERE ESKATUKO DU PENSIODUNEN MUGIMENDUAK MANIFESTAZIOAN

tertzeko". Gogoratu dute neurri hori Nafarroako Gobernuak EH Bildurekin sinatutako 2024ko aurrekontu aurreakordioan jasota dagoela.

Zerga erreforma ere eskatuko du Sakanako pentsiodunen mugimenduak manifestazioan. "Energia enpresei eta bankuei zerga bereziak ezartzeaz harago, zerga erreforma sakona eta aurrerakoia egin behar da". Mugimenduko kideen iritziz horrek diru baliabideak sortuko lituzke eta, ondorioz, aukera emanen luke konponbidea emateko energia pobrezia, erosketaren garestitzea edo gazte eta adinekoendako etxebizitzaren arazoari.

### Akordioa begiz jota

Espainiako Gobernuak, CCOO, UGTk, CEOEk eta Cepymek sinatutako akordioarekin ez dago

ados pentsiodunen mugimendua. "Haien iritziz, lan osasunaren pribatizazioa sustatzen du, osasun publikoari lehenetsia eman beharrean. Gizarte Segurantzaren pribatizaziorako beste pauso bat da ere". Gaineratu dutenez, "erretiro partzialari dagokionez, ez du 2013ko erreformaren aurreko egoera berreskuratzen. Erreformara arte aukera zegoen legezko adina baino 5 urte lehenago erretiro partziala hartzeko. 2013an 65 urtekoa zen, gaur egun 66 urte eta 6 hilabete eta 2027a 67". Jubilazio partziala hartzeko 33 urte kotizatu beharko da, "baina lanaldia oso gutxi murriztuko zaio".

Gaineratu dutenez, "pentsioen eta lanaren arteko bateragarritasunak, erretiro aktiboak, pentsio berrien murrizketa konpentsatzeko aukera da, baina presioa da adin handitan lan egitea. Eta nahikoa ez den pentsio bat duten jubilatutako askok erretiroa atzeratzeko betebeharra izan dute". Horregatik guztiagatik, Sakanako pentsiodunen mugimenduak Altsasuko Foru plaza-tik larunbatean, 19:00etan, abiatuko den manifestazioan parte hartzea deitu du.

# FESTAK

## UHARTE ARAKIL SAN MIGELAK

### IRAILAK 27 Ostirala

13:00 Festen hasierako suziria. Auzatea.

14:30 Zikiri bazkaria, UAGaren eskutik.

18:00 Futbito. Hirugarren mailako ligako bigarren jardunaldia: Aralar Mendi – Betelu.

20:00 Auzatea.

20:00-22:00 Play Back. Sariak: lehenengo euskarazko abestia eta lehenengo ikuskizun onena; partaide guztiek izango dute saria.

22:00 Zezensuzkoa.

00:30-02:30 Zutik erromeriarekin dantzaldia.

03:00-05:00 DJ TrioDoJaneiroekin dantzaldia.

### IRAILAK 28 Larunbata

13:00 Auzatea.

13:30 Plaza dantza: ohiko dantzak elkarrekin dantzatzeko aukera (jotak, jauziak...).

14:30 Paella jatea.

18:00 Eztanda Txaranga.

19:00 Buruhandiak.

20:00 Auzatea.

20:00-22:00 Berriztu erromeriarekin dantzaldia.

22:00 Zezensuzkoa.

00:30-02:30 Berriztu erromeriarekin dantzaldia.

03:00-05:00 DJ Asier Barbururekin dantzaldia.

### IRAILAK 29 Igandea

12:30 Mikel Donearen omenezko meza.

13:00 Auzatea.

14:30 Jubilatuen bazkaria.

16:00 Jokai haurrentako jolasak, Erreka kalean.

17:45 Pilota partiduak, Larrebieta pilotalekuan.

18:30 Buruhandiak.

19:00 Txokolate jana, herriko gurasoek prestatutakoa.

20:00 Auzatea.

20:00 Los Tajudos del Norterekin dantzaldia.

22:00 Zezensuzkoa.

## OLATZAGUTIA

### SAN MIGEL FESTAK

### IRAILAK 27 Ostirala

19:00 Txupinazoa, kultur etxetik. Ondoren, erraldoiak eta buruhandiak eta La Cigarra txaranga.



ARTXIBOA

**UHARTE ARAKIL** Larunbatean, paella jatea egingen dute Uharte Arakilen.

20:00-22:00 Muxutruk erromeria.

20:00 Japoniar bonbak eta banaketa, kultur etxean.

22:00 Zezensuzkoa.

Bokatada, gaztetxean.

OGAk antolatuta.

23:30 Kontzertuak: Bulkada, Mandroll eta Mataperros taldeak, gaztetxean.

OGAk antolatuta.

### IRAILAK 28 Larunbata

08:30-09:30 Olatzagutia Urbasa XVI. Mendi lasterketaren dortsal banaketa.

09:00 Taila erakustaldia motozerrarekin, Hacha taldearen eskutik (STIHL talde ofiziala), egunean zehar, Domingo Bados eskolako patioan.

10:00 Olatzagutia Urbasa XVI. Mendi Lasterketa: 17,2 kilometro, 920 metro desnibel; San Migel plazan irteera eta helmuga.

Sutegi taldeak antolatuta udalaren laguntzarekin.

Haur lasterketetan izena ematea.

10:30 Haur lasterketak: Moto GP (0-4 urte bitarteko haurrentako; bakoitzak bere motorra eta burukoa eraman beharko du); oinezkoak (5 eta 7 urte, 8 eta 10 urte, 11 eta 13 urte eta 14 eta 15 urte bitarte).

11:20 Mendi lasterketaren lehenengo korrikalariaren iritsiera.

11:30-13:00 Jolas parkea, San Migel plazan (euriarekin udal frontoian).

12:00-14:00 Pintura ikastaroko ikasleen margo erakusketa, kultur etxean.

13:00 Olatzagutia Urbasa XVI. Mendi Lasterketaren azken korrikalariaren iritsiera eta sari banaketa, San Migel plazako kioskoan (euriarekin udal frontoian).

14:30 Herri bazkaria, Vicente Argomaniz plazan (euriarekin Erburua kiroldegian).

15:30-18:30 Jolas parkea, San Migel plazan.

19:00 Olazitiko euskal dantzak

dantzatzeko hitzordua, San Migel plazan.

20:00 Japoniar bonbak eta banaketa, kultur etxean.

Palestinaren aldeko elkarretaratzea, San Migel plazan.

OGAk antolatuta.

20:00-22:00 Ken Bat taldearekin dantzaldia.

22:00 Zezensuzkoa.

00:00-02:00 Ken Bat taldearekin dantzaldia.

03:30 DJ Boletus Rumberus, gaztetxean.

OGAk antolatuta.

### IRAILAK 29 Igandea

11:00-14:30 Artisau azoka, Memoria Historikoaren parkean (euriarekin, Erburua kiroldegian).

11:00-13:30 Munduko Arrozak, Memoria Historikoaren parkean (euriarekin, Erburua kiroldegian).

Sakana Harrera Harana, Sahara, Errumania, Paraguai, Venezuela eta Maroko, Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Zerbitzuak, Sakana Harrera Haranak eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak antolatuta udalaren laguntzarekin.

11:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira Altsasuko gaiteroekin.

12:00-14:00 Pintura ikastaroko ikasleen margo erakusketa, kultur etxean.

Talogintza tailerra, Memoria Historikoaren parkean (euriarekin, Erburua kiroldegian).

12:00-13:00 Txapa tailerra, Memoria Historikoaren parkean (euriarekin, Erburua kiroldegian).

12:30 Pantxika Lamourren

errezeta berezia, Memoria Historikoaren parkean (euriarekin, Erburua kiroldegian).

13:30 Munduko arroz dastaketa.

18:00 Motxila 21 taldearen kontzertua, futbito pistan (euriarekin udal frontoian).

19:30-21:00 La Cigarra txarngaren kontzertua, San Migel plazan (euriarekin udal frontoian).

20:00 Japoniar bonbak eta banaketa, kultur etxean.

21:00 Zezensuzkoa.

# Udako argazki lehiaketa

## Argazki onenari saria eta Publikoaren bozken saria: Aroa Galarza (Gu eredu)

Irabazlearen pisu adineko Lacturale litro esne Guaixe Fundazioaren lotea



## Bazkideen arteko argazki onenari saria: Laura Olmos (Barearen ostean dator ekaitza)

Etxarriko kanpineko jatetxean bi lagunentzako bazkaria eta Estética Laura zentroan gorputz eta aurpegi masajea





Iker Diez de Ulzurrun, Baxerri, eta Kattalin Armendariz Irastorza elkarteakideak.

# "Ez genuen pentsatzen halako jende pila mugituko zenik"

**KATTALIN ARMENDARIZ** ESKLEROSI ANIZKOITZA ELKARTEKO FISIOTERAPEUTA  
Elkar Mugi musika jaialdia, maiatzaren 31n eta garagarrilaren 1ean Altsasun izan zena. Hura guztia pasata, balorazioa egiteko garaia iritsi da

**Alfredo Alvaro Igoa** ALTSASU

Horrela aurkeztu zuten Elkar Mugi jaialdia: "Nafarroako Esklerosia Nafarroako Esklerosi Anizkoitza diagnostikatutako pertsonen pertsonak osatzen duten elkarte eta gaixotasunaren ikerketa bultzatzeko sortua da. Elkartasunezko besarkada bat izan nahi du, muga eta ezintasun guztiengandik zubiak eraikiz, Elkar mugit!"

**Elkar Mugi jaialdia, zer oroitzapen?**  
Oso onak. Poz handia. Guretako berritasun bat izan zen. Eta, gai-

nera, Esklerosi Anizkoitza elkarteko bazkide baten ideia izan zen.

**Nola bizi izan zenuen?**

Aurreko egunak urduritasun handi-handikoak izan ziren, elkarrizketa asko eman nituen. Zirrara eta ezinegona sentitu nituen. Jaialdian ez nuen lanik egin eta gozatu nuen. Gainera, niri ere gustatzen zitzaizkidan taldeak han zeuden, eta gozatu nuen, asko gainera.

**Jaialdia "elkartasunezko besarkada" izan zen?**

Bai, bai, dudarik gabe.

**Auzolanaz zer esan dezakezu?**

Ez genuen pentsatzen halako jende pila mugituko zenik jaialdirako. Boluntario pila bat. Bazegoen jendea. Boluntarioak opatzeko ez zen aterik jo beharrik izan. Eskertzekoa da, ez genuen jendearen horrelako erantzunik espero.

**Elkar Mugi Nafarroako Esklerosi Anizkoitza elkarteari ikusgarritasuna eman dio?**

Guk baietz uste dugu baietz. Zertan sumatzen den? Bazkide gehiago ditugula. Gainera, jendeak ezagutu duelako, ez denek, zer

den Esklerosi Anizkoitza. Gauza handia da hori lortzea. Esklerosi Anizkoitza momentuz sendabiderik ez duen gaitz bat da. Kronikoa da. Gainera, jendeak Albo Esklerosi Amiotrofikoarekin (AEA) nahasten du, biek esklerosi hitza dutelako. Biak gaixotasun neurologikoak dira, biak kronikoak, biak degeneratiboak, baina ez dira gaixotasun bera.

**Zuena, Esklerosi Anizkoitza, AEAREN "itzalean" gelditu da?**

Bai. Ikusgarritasun gutxiago izan du, AEA duten pertsonen bizi itzaropena txikiagoa delako. **Jaialdiaren bulkada ekonomikoa zertara bideratuko duzue?**

Ez genuen halako dirutzarik espero. Nik jakin nuenean aho zabalik gelditu nintzen. Guretzako sorpresa handia izan zen. Eskerrik asko gerturatu ziren guztiei, han lanean egon ziren guztiei eta itzalean lanean egon diren guztiei ere. Mila-mila esker! **Handia izan behar du elkartearen dako halako dirutza bat jasotzea.** Ez genuen espero, ez. Elkartearen alde inork ez du horrelakorik egin inoiz.

**Baliabide horiek zerbaitetara bideratu dituzue?**

Alde batetik, elkarte txiki gelditu zitzaigun eta ondoan zegoen lokal bat, gimnasio bat, alokatu dugu. Orain han zabaldu dugu eta Kabi-berri du izena toki berriak. Espazio gehiago daukagu, ez gaude hain pilatuta denak, eta erosoago lan egiteko aukera dugu. Proiektu berriendako kabia izanen da. Horrelako tokirik ez genuenez, exoeskeletoarekin saioak lehen elkartetik kanpo egiten genituen. Kalera atera beharrik gabe, guretako erosoago ibiltzeko da toki bat izan da Kabiberri. Fisioterapeutoi lana errazten digu, eta erabiltzaileendako ere erosoago da, ez direlako elkartetik kanpora atera behar.

**Zerbait gehiagorako erabili duzue dirua?**

Elkar Mugi jaialdia sortu zenean beste ideia bat sortu zen: Altsasun beste kabi bat bilatzea. Hemengo erabiltzaileek ere beste erabateko arreta izan dezaten. Momentuz, aita Barandiaranen gaude, baina gure ideia da udalarekin hartu-emanetan jartzea eta laguntza eskatzea. Ea posible den beste toki batean gure lana egiten jarraitzea, beste baliabide batzuekin eta beste erositasun batekin.

**Ez dakit ikerketarako iritsiko ote zen?**

Momentuz ez dakigu. Ikerketa badago, bai medikuntzaren al-

## Datuak

- **Egunak:** 2.
- **Taldeak:** 20.
- **Boluntarioak:** 500.
- **Saldutako sarrerak:** 4.500.
- **Irabaziak:** 201.079 euro.
- **Elkartearen urteak:** 30.
- **Elkarteko bazkideak:** 600.
- **Bazkideak Sakanan:** 36.
- **Elkartearen egoitzak:** Antsoain, Tuter eta Altsasu.
- **Elkartearen exoeskeletoak:** 1.

## Esker ona

**Musika taldeei:**

Non Servium, Rotten XIII, Talco, Unidad Alavesa, Brigade Loco, Kaotiko, Tropa do Carallo, Hell Beer Boys, Segis, Des-kontrol, Crim, Dinamita, The Lio, Nafarroa 1512, Añube, Sofokaos, Garratz, Pubic Enemy, Muga Zero eta Elektrokela elektrotzaranga

**Erakundeak:**

HFMN Crew, Jimmy Jazz Gasteiz, Entzun produkzioak, Musikaze Pro, Sakanako DYA eta Altsasuko Udala.

detik eta bai fisioterapiaren aldetik. Mila aurpegi dituen gaixotasun bat da, eta ez ditu bakarrik ondorio fisikoak izaten. Garunean ere eragiten du. Batzuek ere memoria arazoak izaten dituzte. Espektrio zabaleko gaixotasuna da. Esklerosi Multiple Espainiak duen web orrian immunologo eta neurologo banak esaten dute hemendik 10 urtetara Esklerosi Anizkoitza kontrolatuta egongo den gaixotasun bat izango dela, baina ez dakigu.

**Pasatu da olatu handi hori. Zer diote gaixoe?**

Oso pozik eta eskertuta daude. Beraiek ere txundituta daude. Ez zuten espero horrelako elkar-kuntza bat eta horrelako kanpoko jendearen inplikazioa.

**Bukatzeo jende askok egiten duen galdera: bigarren jaialdi bat antolatzeo gogorik gelditu zaizue?**

Nik espero dut baietz, baina ezin dut ezer esan. Ez dago nire esku.



Bizikleta Eguneko taldea, Lizarragara bidean.

# Bizikleta Egunak erronkari eutsi zion

Bezperako ekaitzek partaidetzan eragina izan zuten, baina Sakanako Bizikleta Egunak Ziordia eta Uharte Arakil batu zituen, Lizarragan atsedean hartu eta gero. Eguna "bikain" atera zela dio Sakanako Mankomunitateak

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA Bezperako ekaitzek XXX. Sakanako Bizikleta Egunean eragina izan zuten, partaidetza nabarmen murriztu egin baitzuen. Hala ere, ateri eutsi zion eguraldiak eta bizi-bizi abiatu zen tropela Ziorditik. Aurten ekimena Ergoienara iritsi zen, eta Lizarragan egin zen atsedendia. "Be-

riain mendiko ur jauzia ere ikusi ahal izan genuen" azaldu du Sakanako Mankomunitateko Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak, Sakanako Bizikleta Eguneko arduradunak.

Aurten 30. urtemuga zenez, ekitaldi berezia antolatzen zuten Mankomunitateak, Jon Barbarinek Arbizuko plazan antzeztu

zuen antzerkia, hain zuzen ere. Barbarin denboran galdutako Aixitako zaldunaren paperean sartu zen, guztien gozamenerako.

Erritmo oso bizian joan zen martxa; 13:00etarako iritsi zen Uharte Arakilerara, 35 km osatuta. 30 edizio osatuta, beste horrenbeste bete nahi ditu sakandarrendako kuttuna den egunak.

## Protagonistak



Barranka taldekoak, ibilbidea gidatzen.

**Barranka Txirrindulari Taldea.** Ohi bezala, Barrankako bikerrek prestatu zuten Sakanako Bizikleta Eguneko ibilbidea, eta egunean bertan, martxa kontrolatu zuten, inor atzean geratu ez zedin.



Adin guztietako sakandarrek parte hartu zuten egunean.

**Sakandarrek.** Familiek, haurrek, gazteek, helduek, kuadrillek... parte hartu zuten Sakanako Bizikleta Egunean. Berrito ere argi geratu zen Sakana txirrindulazalea dela.

## Alzheimerraren III. Herri Martxak babes zabala lortu zuen

Guztira 350 pertsonen parte hartu zuten Josefina Arregi Klinikak antolatutako ekimenean

### M.B.G. ALTSASU

Aurten Alzheimerraren Nazioarteko Egunarekin bat egin zuen Josefina Arregi Klinikak antolatutako Alzheimerraren III. Herri Martxa-Lasterketak. Ekimenaren helburua Alzheimerra ezagutarazi, gaixotasunaren sentsibilizazioa eta prebentzioa egin, eta kirol-ohitura osasungarriak sustatzea zen, eta klinikarendako laguntza jasotzea.

### Parte hartze handia

Egun borobila izan zen. Guztira 350 pertsonen parte hartu zuten.

Horietatik gehienek 8 km-ko martxa hautatu zuten, korrikalariak 9 km-ko ibilbidea, eta nagusienek eta haur txikiak dituzten familiek 4 km-ko martxa. Gustura aritu ziren guztiak.

Plazan bukatu ziren lasterketa eta martxak. Auzatea, musika eta dantzak izan zituzten gozagarri. Bestalde, ikusmin handia piztu zuten adineko jantzi simulagailuak eta errealitate birtualeko betaurrekoak. Probatu zituztenek adinduek bizi dituzten oztopoak sentitu zituzten. Hala ere, adinduenek kirola egiteko



Ekimenean parte hartu zutenek kamiseta berdea jaso zuten opari.

aukera izan zuten. Josefina Arregi eskerririk beroenak eman nahi dizkie ekimenarekin bat egin zuten talde eta klub guztiak.

Josefina Arregi Fundazioko presidente Joseba Arregi ere oso eskertuta zegoen ekimenak izandako erantzunarekin, eta Jose-

fina Arregi Klinikaren proiektua "inoiz baino biziago" dagoela nabarmendu zuen. Halaber, sakandarrek klinikari ematen dioten babes "beti gertu" sentitu dutela gaineratu zuen.

**BIKAIN  
GARAJEA**



**Mekanika  
Elektromekanika  
Serie 100  
pintura prototipoa  
Autokarabana eta  
furgoneta saila**

948 460 037 Arbizu

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / [kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

## OSTIRALA 27

## IRURTZUN Tailerra.

Tramankulu tailerra.  
17:00etan, Gernika plaza.

## LAKUNTZA Aurkezpena.

Geroaren bidean proiektuaren aurkezpena, Lakuntzako Herri Eskolak eta Lakuntzako Guraso Elkarteak antolatuta.

18:00etan, kultur etxean.

## ALTSASU Aurkezpena.

Aukera Gunea Osasun eta ongizate zentroaren mustutze ekitaldia eta ate irekiak: Loratzen Psikologia, Biak Bat, Dietetika-Nutrizioa, Irauli, Itziar Telletxea Medikuntza txinatarrak eta akupuntura.

19:00etatik 20:00etara,  
Larrainbide kalea, 5.

## ALTSASU Kultur jardunaldiak.

La Encina kultur elkartearen Extremadurako kultur jardunaldiak.

18:30 Extremadurako eta Nafarroako ereserkiak, Altsasuko Brotes de Encina eta Iruñeko Raices y Brotes kultur taldeek interpretatuta. Ondoren, Idoia Goikoetxea Gomez altsasuarraren pregoia, jardunaldiei hasiera emanez.

19:00 2024/2025 ikasturtean La Encina elkartearen ordezkariak bandak jartzea.

19:30 Extremadurako jotzen erakustaldia Brotes de Encina txikiaren eskutik.

20:00 Extremadurako produktuekin egindako merendua eta ohorezko ardoa.

## ETXARRI ARANATZ Tailerra.

KRASK tailerra: ahozko narratioaren, jokoan eta esku lanen bidez haurrei gatazkak konpontzen eta bideratzen lagunduko zaie, Izaskun Mugikaren eskutik, Bakea eta bizikidetzat lantzen duten liburutegiak zikloaren barruan.  
18:30ean liburutegian.

## IRURTZUN Antzerkia.

Herrien arteko antzerki tailerren II. zikloa: *Farolas del pueblo*, Irunberriko antzerki tailerren antzezlanaren emanaldia. Sarrerak: 5 euro.

19:00etan, kultur etxean.

## LARUNBATA 28

## ALTSASU Txirringularitza irteera.

Barranka Txirringularitza Taldearen talde mistoaren irteera: Lizarragara, 51 kilometroko ibilbidea.  
08:30ean, Zumalakarregi plazan.

## UNANU Kontzertu berezia.

ZETAk Unanuko herriari eta mamuxarroei eskainitako kontzertu berezia (sarrerak agortuta) eta herritarrek antolatutako festa.

12:00 Herri kirolak, plazan (eguraldi txarrarekin frontoian).

15:00 Herri bazkaria, plazan (eguraldi txarrarekin frontoian).

18:00 Poteo musikatua.

20:00 Bokata gunea, Denok Bat elkartearen.

21:00 Plazaren irekiera.

21:45 Zozketa.

22:00 ZETAk kontzertua, plazan.

00:15 DJ (gaupasa).

## LIZARRAGA Bakarriketa.

Txiki umoregilearen *Euskaldunen jatorria, historia eta irria* bakarriketa. *Ergoiena bizirik!* egitasmoak antolatuta.  
18:00etan, auzoan.

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

**Bitelchús, bitelchús**Igandea 29 19:30  
Astelehena 30 19:00**Inside Out 2**

Igandea 29 17:30

**Emmanuelle**

Osteguna 3 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

**La virgen roja**

Osteguna 3 19:00

## ALTSASU Manifestazioa.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduak eta Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak deitutako pentsio duinak, osasun publikoa, kalitatezko zaintza sistema eta abar aldarrikatzeko manifestazioa, Urriaren 1aren Adinduen nazioarteko egunaren harira.

19:00etan, Foru plazatik.

## IGANDEA 29

## ALTSASU Mendi irteera.

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatutako mendi irteera: Iratiko oihanera mendi irteera.

07:00etan, autobus geltokitik.

## ALTSASU Azoka.

Ganbarazelaia azoka: bigarren eskuko azoka eta zuzeneko musika dj sarpresarekin.

09:30etik aurrera, Iortia zabalgunean.

## UHARTE ARAKIL San Migel eguneko mezak.

09:00 Meza.



UTZITAKOIA

ALTSASU Artekleta. Bizikletari bide: jasangarritasuna, artea eta Sakana. Sakanako artistek bizikletekin egindako artelanen erakusketa.

Altsasu BHLn.



## ALTSASU Yolanda Arnedo dekorazio tailerren lanak.

Urriaren 13ra arte. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna baino ordu bat lehenago eta igandetan 18:30etik 19:30era. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.

10:00 Meza.

11:00 Meza.

12:30 Meza nagusia.

17:00 Meza.

18:00 Meza.

## IRURTZUN Antzerkia.

Herrien arteko antzerki tailerren II. zikloa: *Sueños del valle* Etxauriko antzerki tailerren antzezlanaren emanaldia. Sarrerak: 5 euro.

19:00etan, kultur etxean.

## ETXARRI ARANATZ

## Zinema eta solasaldia.

Bizkarsoro filmaren emanaldia eta filmaren lantaldeko kide batekin solasaldia. Sarrerak: 4 euro.

19:00etan, kultur etxean.

## ASTELEHENA 30

## ALTSASU Elkarretaratzea.



Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | [info@aluminioserviti.es](mailto:info@aluminioserviti.es)

Ez bota etxea leihotik!

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.  
**12:00etan, udaletxearen aurrean.**

## ASTEARTEA 1

### ALTSASU Familiendako hitzaldia.

Telefono mugikorrek: *Noiz eta nola?* familiendako hitzaldia, Bidelagun elkarteko Miren Rosek bideratuta. Gaztelaniaz. Altxa Burua Altsasuk eta Altsasuko, Olaztiko eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak antolatuta.  
**17:00etan, Iortia kultur gunean.**

## OSTEGUNA 3

### ETXARRI ARANATZ Dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia.

*Berrehun eta hamabi* dokumentalaren proiektzioa eta Xabier Zarranz egilearen solasaldia, Mendira Joan Etorriaren bezperan, Triku Trailek antolatuta.  
**19:00etan, Larrañeta elkartean.**

## OSTIRALA 4

### ARBIZU Batzarra.

Eskola zaharra erabiltzeko oinarriko araudiaren proposamena eztabaidatzeko batzarra.  
**18:30ean, eskola zaharreko areto nagusian.**

### OLATZAGUTIA Irakurle taldea.

Olatzagutiko irakurle taldea: Alejandro Palomas idazlearen *Una madre* liburua.  
**19:00etan, liburutegian.**

### ETXARRI ARANATZ Aurkezpena.

*Zama X. Azken doinuak etxerantz* kartelaren aurkezpen festa.  
**20:30 Zama arintzeko taloak, plazan.**  
**21:00 Zama X kartelaren aurkezpena.**  
**21:30 Mirari Martiarenaren bakarrizketa.**  
**22:00 Ane Martijaren kontzertua.**  
**23:00 Bulkada taldearen kontzertua.**

## ESKELA



### Pili Arevalo Gomez



(2024ko irailaren 23an hil zen)

Ahazten ez dena ez da sekula hilko

**81eko kinta**  
Altsasu

## IRAGARKI SAILKATUAK

### MEKANIKARI LANPOSTUA

Kamioi eta autobus tailerra mekanika, txapa eta margo ezagutzak dituen langile bila Sakanan. Curriculumak: [tallercamion10@gmail.com](mailto:tallercamion10@gmail.com) / 948 507 019

### LANA/NEGOZIOAK

#### LAN ESKAINTZA

**Irurtzango PIKUXAR tabernak zerbitzaria bilatzen du:** txandakako asteburuetan lan egiteko. Esperientzia baloratuko da. Euskara ezinbestekoa. Interesa dutenek CVA tabernan utzi edo [pikuxa.berna@gmail.com](mailto:pikuxa.berna@gmail.com) helbide elektronikora bidali.

**Mank-en lan egiteko aisialdiko begirale eta kirol monitore lan poltsak osatu nahi dira:** Bi deialditan parte hartzeko C1 euskara maila beharrezkoa izango da. Informazio gehiago [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) web orrian.

### OPATUTAKOAK

**Irailaren 13an Txurregin aurkitutako betaurrekoak:** Txurregi mendian aurkitu nituen betaurreko graduatuak Irurtzango udaletxean utzi ditut, galdu dituenak han aurkitu ditzake.

**Etxarri Aranazko udaletxearen estalopean Wilson markako tenis raketa baten funda beltza opatuta:** Irratian dago.

**Etxarri Aranazten 6 giltza aurkitu dituzte:**

**Hotsein!** Giltzarrapo batean, gomazko bi panpin txikiarekin batera. Irratian daude.

### IKASTAROAK

**Xake ikastaroa Etxarri Aranazten:** 7 urtetik gorakoentzat, urriaren 4tik aurrera, ostegunero 18:30ean. Informazio gehiago eta izen emateak [liburutegian](http://liburutegian).

**Sakanako Emakumeendako atletismo eskolan izen ematea zabalik:** Urriaren 4tik ekainaren 7ra arte izanen da ikastaroa, ostiralero, 17:00etatik 18:15era Dantzalekun. Izen emateak Sakanako Mankomunitatean. 948 464 866 edo [kirolak@sakana-mank.eus](mailto:kirolak@sakana-mank.eus).

### OHARRAK

**Lakuntzako entitateendako Udalaren dirulaguntza deialdia zabalik:** Laguntzak eskuratzeko baldintzak dira jarduerak herritar guztiendako zabalik egotea, hezkuntzaren edota gizarte, kirol eta kulturaren aldetik interesgarriak izatea, herritarren harremanak eta elkarbizitza, hautapen libre eta garapen pertsonala sustatzea eta udalaren beste laguntza lerro batean sarturik ez egotea. Deialdiaren oinarriak eta dokumentazioarekin batera aurkeztu beharreko eskabide ereduak [www.lakuntza.eus](http://www.lakuntza.eus) webgunean dago. Eskaerak urriaren 4ra arte aurkez daitezke.

**Lakuntzan Euskara ikasteko dirulaguntzak:**

Lakuntzan erroldatutako 16 urtetik gorako pertsonen zuzendua. Deialdiko oinarriak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa udal bulegoetan daude eskura eta eskariak Lakuntzako Udalaren erregistroan aurkeztu behar dira urriaren 4a baino lehen. Informazio osoa [www.lakuntza.eus](http://www.lakuntza.eus) web orrian eta udaletxean.

**Arbizuko Utzubar Ekogunean konposta eskuragarri:** Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak gogorarazi du, nahi duen guztiak urte guztian zehar konposta eskuragarri duela bertan. Informazio gehiago nahi duenak [info.hondakinak@sakana-mank.eus](mailto:info.hondakinak@sakana-mank.eus) e-postara idatz dezala edo 900 730 450 telefonora hots egin dezala.

**Etxarri Aranazko Abesbatza Txikiak zure aho-tsa behar du:** 6-15 urte bitarteko haurrez osatuta dago abesbatza eta kide berrien bila dabil. Interesa duenak harremanetan jar dadila [corotxikis@gmail.com](mailto:corotxikis@gmail.com) helbidera idatziz. Informazio gehiago [www.coraldebetxamiranz.com](http://www.coraldebetxamiranz.com) web orrian.

**Euskara ikastaro teknikoak egiteko dirulaguntzak:** Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, atzera ere, ikasketa ofizialak eta arautuak ez diren ikastaro, jardunaldi, biltzar, mintegi edo gisa-koetan parte hartu duten herritarrei dirulaguntza emateko deialdia zabaldu du. Joan zen urteko azaroaren 1etik aurrera

abenduaren 31ra bitarteko ikastaroen matrikulak. Beti ere, edozein gairi buruz euskaraz egindakoak badira, aisialdiko monitore edo zuzendari izateko euskarazko ikastaroak barne. Horiez aparte, euskararen edota hizkuntza gutxituen normalizazioarekin edo soziolingüistikarekin zerikusia dutenak ere lagunduko ditu. Laguntzatik kanpo geldituko dira egoitza eta kilometraje gastuak. Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, aurrerago abenduaren 31rako bukatuta ez dauden ikastaroen kasuan, gutxienez %80ko assistentzia eskatuko die parte hartzaileei data horretarako. Deialdiari buruzko informazio guztia [sakana-mank.eus](http://sakana-mank.eus) webgunean.

**SOS GAZA. Gemika-Palestina herri ekimenak Yala Nafarroa plataformarekin batera Elkartzaren Aktiboa inizatiba marbxan jarri du:** Netanyahu nazioarteko epaileen aurrean eramateko, Gazan elkartasuna proiektuak bultzatzeko Mundubat GKE-ren bitartez eta Palestina leku guztietan ikusarazteko. Ekarpene ekonomikoa egiteko, Nafarroan ES36 3035 0083 2808 3014 0037 kontu korrontean dirua sar dezakezu, edo zure banke-txearen aplikazioaren bitartez BIZUM EMN/DONAR atalean Mundubat Fundazioa bilatu eta 08737 kodea erabiltza dirua eman.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)  
[www.iragarkilaburra.eus](http://www.iragarkilaburra.eus)

## ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo [eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus)

- Eskelen tarifik: 55,90€ / 106,5€ / 143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.

## HERIOTZAK

- **Maria Concepcion Ochoa Galarza**, irailaren 18an Olaztin.
- **Casilda Amillano Muruzabal**, irailaren 20an Altsasun.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

JARRI ZURE  
IRAGARKI LABURRA!

948 56 42 75  
[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)  
[www.guaixe.eus/iragarkiak](http://www.guaixe.eus/iragarkiak)



**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 📧 @Grupolrache
- 📱 Grupolrache
- 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

# Etxeberriak eta Igeak lortu zituzten katolak

**ATLETISMOA** Parte hartze politarekin Dorraon jokaturako XVIII. Ergoienako Biran Aritz Etxeberria eta Leire Igea izan ziren protagonista nagusiak. Korrikalariak Dorrao, Unanu eta Lizarraga batu zituen probaren gogortasuna eta edertasuna goraiatu zuten

**Maidar Betelu Ganboa** ERGOIENA  
Giro ederrean jokatu zen XVIII. Ergoienako Bira. Aurten Dorrao izan zen abiapuntu eta helmuga, baina Dorrao, Unanu eta Lizarraga artean jokatu zen, 8,5 km-ko lasterketa gorabeheratsua osatuz.

Antolatzaileak, Ergoienako Udala eta hiru kontzejuak, kontentur daude, joan zen urteko parte hartzea asko hobetu zelako. Helduen proban iaz dozena bat korrikalari lehiatu ziren, eta aurten 39 korrikalari izan dira, eta haurren lasterketetan 24 neska-mutil. "Oso pozik gaude. Lasterketa gehiago iragarri eta zabaldu dugu, eta badirudi erantzuna izan duela. Egun polita izan da" azaldu du antolakuntza-ko Irantzu Mozok.

Haurren mailan, 7 urte bitarteko kategorian Eneko Lopez de Sabando iritsi zen lehena, Amets Mozoren eta Aimar Mañeruren aurretik. 7 eta 13 urte bitarteko mailan, aldiz, Aiora Resano gailendu zen, Ander Veselinv-en eta Izaro Resanoren aurretik.

## Etxeberria, katolarekin pozik

Aritz Etxeberria altsasuarrak lehengo aldiz parte hartu zuen Ergoienako Biran, baina iritsi eta arrakasta izan, guztia bat izan zen (25:57). 13 segundo atera



Aritz Etxeberria, Asier Gutierrez eta Sergio Garcia de Eulate, podiumean. UTZITAKOA

zizkion Asier Gutierrez (26:11), eta alde gehiago Sergio Garcia de Eulate hirugarrenari (23:25). "Arrazoi ezberdinengatik orain arte ezin izan dut bertan parte hartu, eta ez da azkena izango, ziur. Ergoienako Bira gogorra da, ez nago ohituta ibilbide hain

**"BERTAN HALAKO PROBAK IZATEA ALTXORRA DA; EZIN DITUGU GALTZEN UTZI" ARITZ ETXEBERRIA**

gorabeheratsua dituzten lasterketetara. Ibilbide gogorra, eta antolakuntza eta paraje mundiala, ezin da gehiago eskatu. Majo sufrituta, garaipenarekin oso pozik itzuli nintzen etxera, zapo ederrarekin" dio Ergoienako Birako txapeldunak.

Proba herrikoien "xarma berezia" nabarmendu du altsasuarrak. "Lasterketa auzolanean antolatzeaz aparte, bizitzen den giroa, eta auzatea eta banatzen diren sariak bereziak izaten dira. Irabazteagatik Unanuko mamuxarroek daramaten katola eramane

## Sailkapena

### Gizonak

1. Aritz Etxeberria	25:57
2. Asier Gutierrez	26:11
3. Sergio G. de Eulate	23:25
4. M. A. Hernandez	26:33
5. Adur Senar	26:50
6. Joseba Iza	26:10
7. Asier Pellejero	26:24
8. Javier Mañeru	29:49
9. Egoitz Lizarraga	30:07
10. Beñat Lizarraga	30:24
11. Jose Javier Maiza	30:40
12. Ruben Garcia	30:45
13. Ivan L. de Sabando	31:26
14. Xabier Gonzalez	31:29
15. Jon Orella	31:55
16. Asier Leitza	33:38
17. J.A. Asensio	33:48
19. Iraitz Goñi	34:09
20. Iñaki Azparren	34:16
21. Mikel Razkin	34:36
23. J. A. Salgado	34:54
25. Santi Agirre	35:05
27. Mikel Lizarraga	37:46
28. Joni Araña	38:29
30. Igor Artieda	39:11
31. Martin Veselionv	43:22
32. Beñat Garzandía	43:22
33. Luismari Juaristi	44:15
34. Araceli Garcia	44:15
35. Mattin Juanikorena	44:15

### Emakumeak

18. Leire Igea	34:08
22. Erkuden S. Martin	34:45
24. Noemi Cordero	35:00
26. Marian Lucero	35:11
29. Maite Zabaleta	39:11

## EMAKUME PREFERENTEA

### 2. JARDUNALDIKO EMAITZA

Castejon - Altsasu 5-8

### SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTEA, 1. FASEA

1 Altsasu 6

2 Burladés 4

### HURRENGOA

IRAILAK 29, IGANDEA

18:00 Altsasu - Cantolagua (*Dantzaleku*)

### Altsasuk Cantolagua hartuko du

Castejonon sekulako garaipena lortu eta gero, lidergoa sendotu nahi du Altsasuk.

## GIZON ERREGIONALA

### 2. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Kirol Sport 2-1

Etxarri Aranatz - Beti Onak B 8-1

Alde Zaharreko Kluba - Lagun Artea 1-5

### SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 San Jorge 6

2 Altsasu 6

5 Etxarri Aranatz 4

6 Lagun Artea 4

### HURRENGO JARDUNALDIA

IRAILAK 28, LARUNBATA

16:00 Beti Kozkor B - Altsasu (*Lekunberr*)

16:00 Lagunak B - Etxarri (*Lagunak*)

16:00 Lagun Artea - Baztan B (*Zelai Berr*)

### Altsasuk Lekunberrin jokatu du

Altsasuk garaipen polita lortu zuen Kirol Sporten kontra. Sailkapeneko lehen postuetan jarraitzeko, Beti Kozkor B-ren kontra sendo aritu beharko du.

### Etxarri Aranatz, Barañainen

Etxean ospatutako gol festaren ondoren, Lagunak B arerio zuzena du aurkari Etxarri Aranatzek. Bolada onean segi nahi dute.

### Lagun Arteak Baztan B hartuko du

Lagun Artea animotsu dago Iruñean lortutako garaipenaren ondoren. Etxean ere euren onena eman nahi dute lakuntzarrek.

## Jon Erdozia, Nafarroako lehen mailako aizkolaria

**AIZKORA** Nafarroako bigarren mailako finalean txapeldunorde izan eta gero, lehen mailara igo da

Julen Kañamaresek irabazi zuen Uharteko Iruñean jokaturako Nafarroako bigarren mailako aizkolaria txapelketa (21:02). Jon Erdozia etxarriarrari bi minutu luzeko alde aterata (23:15). Biek lehen mailara igo zuten lortu dute.

Jesus Etxeberriak eta Aritz Oiarbide etxarriarrak hirugarren postuarengatik lehia estua izan zuten. Azkenean Etxeberria gailendu zen, 88 ehuneneko aldearengatik (24:13.03). Oiarbide laugarren izan zen (24:13.91).



Bigarren mailako aizkora txapelketako finalistak. ERRAN

## ARETO FUTBOLA Aralar Mendi, Arbizu, Altsasu eta Xota, lanera

Hirugarren mailan Aralar Mendik launa berdindu zuen Burlatarekin. Gaur, ostirala, Betelu taldea hartuko du, 18:00etan. Lehen maila autonomikoan Arbizuk 2-1 irabazi zion Gazte Berriak, eta Altsasuk partida atzeratu zuen. Arbizuk gaur Anaitasuna hartuko du 19:30ean, eta Altsasuk Universidad de Navarra du aurkari 20:30ean, Iruñean. Emakumezkoen Lehen Senior mailan gaur hasiko da liga. Xotak gaur, 20:00etan, Berriozar du aurkari.



**Maidar Betelu Ganboa** URDIAIN

World Tour mailako Vueltan hiru garaipen lortu eta gero, modan dago Pro Tour mailako Kern Pharma txirrindularitza talde nafarra. Pablo Urtasun urdiaindarra taldeko kirol zuzendarietako bat da, arrakasta horren arduradunetako bat.

**Nolako denboraldia. Nork pentsatuko luke Vueltan hiru garaipen lortuko zenituztela?**

Inork ere ez. Inork pentsatzen zuena baino askoz ere hobeki atera zaigu Vueltan. Emaitzekin oso pozik gaude.

**Emaitza hauek ez dira besterik gabe iristen. Atzean lan izugarria dago, urte askotakoa. Ez dakit seinaleetan sinisten duzuen, baina Pablo Castrillok Vueltan Kern Pharmaren lehen garaipena justu Kern Pharma taldeko arima zen Manolo Azkona hil zen egunean lortzea...**

Ez genuen seinaleetan sinisten, baina bai, gezurra dirudi. Manolo Azkonari bere bizitzako lan guztiaren emaitza eman genion egunean, taldearen lehen garaipena, bera zendu berri zegoen. Momentu hunkigarria izan zen, poza eta pena, dena batera.

**Horrek guztiak Asian harrapatu zintuen, Txinan.**

Hainaneko Tourra jokatzeko ari ginen. Manolo Azkona txirrindulari nintzenetik ezagutzen nuen, eta Kern Pharman sartu nintzenetik harreman oso estua nuen berarekin. Txinara joan baino lehen berarekin hitz egin nuen, eta justu samar zegoela esan zidan, baina horren azkar joango zenik ez genuen espero. Pena hori dut, bere heriotzak ni kanpoan harrapatu izana. Bestalde, berak taldearen lehenengo garaipena ez ezagutzea pena handia da; berak ez zuen ikusi bere bizi guztiko lanaren emaitza. Vueltako lehen bi garaipenek Txinan harrapatu ninduten, eta hirugarren garaipenak, aldiz, etxean. Txinatik itzulita egun batzuk hartu nituen Vueltan taldearekin egoteko, txirrindulariei azken asterako animoak emateko.

**Beraz, Urko Berraderen garaipena zuzenean ikusteko aukera izan zenuen, Gasteiz eta Maeztu arteko etapan.**

Helmugan bertan ikusi genuen Urkoren garaipena. Poza ikaragarria izan zen. Hau guztia urte askotako lanaren ondorioa da. Urkok gurekin 5 urte zeramatzen, eta lan asko egindako mutila da. Aurten justu puntua Vueltan

# "Bizitzen ari garen guztia urte askotako lanaren emaitza da"

**PABLO URTASUN PEREZ** KERN PHARMA TALDEKO KIROL ZUZENDARIA

**TXIRRINDULARITZA** Denboraldi ikaragarria egin du Kern Pharmak. Vueltako hiru garaipenen atzean lan handia dagoela berretsi du Pablo Urtasun kirol zuzendariak



Pablo Urtasun Perez, Kern Pharmako autoan, taldea zuzentzen. UTZITAKOIA

harrapatu du, eta merezitako emaitza iritsi zaio.

**Aurretik Pablo Castrillok bi garaipen lortu zituen. Lehena Manzanedan, eta bigarrena Asturiasko Cuitu Negrun sekulako erakustaldia eginez. Castrillok halako salto emango zuenik espero zenuen?**

Bai, aurrera pauso handiak ematen ari zela ikusten genuen. Vueltan baino lehen World Tour talde batekin harremanetan jarria zegoen hurrengo urteetarako beraiekin sinatzeko. Talde handiak bere eboluzioa jarraitzen hasiak ziren, eta hori maila oso handia hartu duenaren seinalea da. Oraindik ez dakigu bere muga non dagoen.

**Kern Pharma Pro Tour edo bigarren mailako taldea izanda, zuen helburua Vueltako etaparen bat irabazteko borrokan sartzea zen, baina World Tour lehen mailako taldeekin lehiari hiru garaipen lortu dituzue. Hori ez da batere ohikoa, esango nuke inoiz ez dela gertatu. Ez da ohikoa. Bi mailetako taldeen artean aurrekontuari begira diferentzia oso handiak daude. World Tour mailakoak talde oso-oso handiak bihurtu dira, eta gu talde oso txikia gara. Horregatik,**

**"MANOLO AZKONAK TALDEAREN LEHEN GARAIPENA EZ EZAGUTZEA PENA HANDIA DA"**

etapa garaipen bat borrokatzea lortzea izaten da gu bezalako taldeen helburua, eta borroka horretan sartuz gero, normalena izaten da garaipena ez lortzea. Eta hiru lortzea... uste dut Pro Tour mailako talde batek World Tour mailako itzuli handi batean inoiz ez dituela lortu. Aurten horrela tokatu da, baina hurrengo urtean helburua izango da berriz ere etapa garaipen baten borrokan sartzea, Vueltako gonbidapena lortzen badugu.

**Aurten eman duzuen maila ikusita, Pro Tour taldeen gonbidapen horietako bat jasoko duzuela pentsa daiteke.**

Hori antolatzaileen erabakia da, baina nik ez dut gonbidapena ziurtzat jotzen. Gutxienez, zer pentsarazi, lan hori jarri diegu. Beraz, gonbidapena lortzeko lanean jarraitu beharra dago.

**Malasian zaude egunotan, Langkawiko Tourrean. Asiako lasterketa guztiak egin dituzu.**

Talde japoniar batean hasi nintzen zuzendari, eta hango lurraldeetan esperientzia dut. Nire egutegiaren %20 Asiako probak dira, eta gainontzekoak Europakoak. Langkawiko Tourra zortzi etapako itzulia da, urriaren 6an despidetuko dena, eta bertan bukatuko dugu denboraldia. Iaz Pablo Castrilloekin hirugarren egin genuen sailkapen orokorrean, eta ea aurten berriz ongi lehiatzea lortu, eta denboraldia ongi bukatzen dugun.

**Nola baloratuko zenuke aurtengo denboraldia?**

Denboraldi ona izan da. Vueltako hiru garaipenez gain, Burgosen laugarren izan ginen, eta Top 10ean postu asko lortu ditugu, aurreko denboraldietan lortzen ez genituenak. Taldearen batez besteko kirol maila asko igo da, eta hori azken urteetako lanaren emaitza da.

**Lortu dituzuen emaitza onen beste alde da zuen txirrindulari batzuek beste talde batzuetara egingo dutela salto.**

Gure lan guztia emaitza horiek lortzeko izaten da, eta emaitzak iristen direnean badakigu talde handiak etorriko direla eta gure txirrindulariak eramango dituztela. Beraz, gure lana da beste txirrindulari berri batzuk hartzea, eta berriz prozesu bera edo hobeagoa egitea. Ezin dugu lehen mailako taldeen parean jarri. Ea noizbait talde handitu, eta txirrindulari horiek gurekin gertatzeko aukera lortzen dugun.



Izaskun Beunza olaztiarra eta beste korrikalari bat ibilbideko lehen maldetan gora, ikusleen txalo artean.

# Beriain Km Bertikala, beti bezain arrakastatsu

**MENDI LASTERKETAK** Bezperako ekaitzek kolokan jarri zuten XV. Uharte Arakil Beriain Km Bertikala, baina azkenean arazorik gabe jokatu zen. Guillermo Ramos eta Lide Urrestarazu izan ziren txapeldunak. Uhartean EH-ko Km Bertikalen Kopa erabaki zen

**Maidar Betelu Ganboa** UHARTE ARAKIL Bezperan ez zegoen giro. Ekaitzek eta euri jasek zalantzan jarri zuten XV. Uharte Arakil Beriain Km Bertikala antolatuko ote zen. Aralar Mendi kluba B plana martxan jartzekotan egon zen: Beriainera igo beharrean, San Miguelera igotzea. Azkenean, eguraldi iragarpenak ekaitzik ez zuela iragar-

tzen ikusita, igandean bertan hartu zuten Uharte Arakil Beriain Km Bertikala beti bezalakoa izatea. Hori bai, ez zen errekorrak apurtzeko eguna izan. Nolanahi ere, korrikalariak ez ziren kikildu; 200 korrikalari baino gehiago zeuden izena emanda, eta 189 kirolari sailkatu ziren. Beste datu kurioso bat utzi zuen probak:

inoiz baino emakume gehiago animatu ziren, eta 30 izan ziren proba bukatzea lortu zutenak.

## Lohi gehiegirik ez

Itxesiko igerilekuetatik gora basora sartzerako unean zegoen lokatzik gehiena, baina mendian gora egin bezain pronto ez zegoen aparteko lohirik. Izan ere, Be-

## "Proba aurrera atera izana asko eskertu digute"

**JUANJO GOIKOETXEA**  
BERASATEGI ARALAR MENDI

**Bezperan zabaldu zen agian B plana aktibatuko zenutela, Beriainera igo beharrean San Miguelera igotzea.**

Aste zaila izan zen, zalantza eta beldur asko izan ditugu. Korrikalariak, ziurrenik, gutxien sufritzen dutenak dira, baina boluntarioengan eta guztion segurtasunean pentsatu behar da. B plana San Miguel izan zitekeela pentsatu genuen, autoz igo daitekeelako, edozer gerta ere. Bezperan oraindik ez



genekien zer egin, egunean bertan erabaki genuen Beriainera jotzea, ez zutelako ekaitzik iragartzen.

**Zorionekoak zuek. Alde batera Beriain, bestera San Miguel, herritik mugitu gabe.** Leku gutxitan izango dute guk dugun zortea zentzu horretan. **Guztia primeran atera zen.** Korrikalariak behin eta berriz esan digute oso pozik daudela Beriainen hautua egin genuelako. Gu ere pozik gaude.

riaingo orografia dela eta, urak berehala beheraka egiten du irrist. Eguraldia lagun, korrikalariak gustura aritu ziren 5 km eta 1.023 m-ko desnibela zuen proba osatzen. Beriain ermitara iristeko azken metro aldapatsuak, beti bezala, ikusgarrienak baino, aldi berean, ikaragarriak izan ziren. Ikusle ugari bildu ziren korrikalariak animatzera.

**Munarriz eta Beunza, podiumean** Azkarrena Miranda de Ebroko Guillermo Ramos izan zen (42:01).

3 segundo atera zizkion Iñigo Alzola arrasatearrari (42:04). Hirugarren joan zen urteko irabazle Xabier Macias iruindarra izan zen (43:24). Aritz Munarriz etxarriarra izan zen lehen sakan-darra, sailkapenean hama-

**"ARRISKATU, ETA EGURALDI ONA ATERA DA. EZIN DUGU GEHIAGO ESKATU"**  
JUANJO GOIKOETXEA

## "Espero baino denbora hobea egin dut"

**AIZEA BERAZA BENGOTXEA** MENDI KORRIKALARIA

Aizea Beraza Bengoetxeak Uharte Arakilgo lehen emakumearen saria jaso zuen Uharte Arakil Beriain Km Bertikalean, Maite Beregañari 4 segundo aterata. **Esango nuke Uharte Arakil Beriain Km Bertikaleko podiumera igotzen zaren lehen aldian hau izan dela.** Hasteko eta behin, Km Bertikalean nire lehenengo parte hartzea hauxe izan da. Urtero antolakuntzan aritu izan naiz, baina beti proba egiteko zera hori bueltaka banuen. Beldur pixka batekin, baina izena eman nuen eta aurten egin dut. Gainera, lehenengoa izan naiz Uharte

Arakilgo emakumeen artean, eta oso pozik nago.

**Bezperako euri jasengatik proba bera zalantzan egon zen. Ohi bezala Beriainera jo, edo B plana aktibatzea izan zen antolakuntzaren zalantza, San Miguelera igotzea. Pertsonalki, zalantzaren bat izan zenuen atera edo ez erabakitzeke unean?**

Ez. Tximista edo trumoiak entzun izan banitu, agian bai, baina, bestela, ez nuen zalantzarik. Argi nuen aterako nintzela.

**Bezperako euriak zirela, lokatz handia espero zen. Horrenbestera izan zen?**

Bezperan, dortsalak banatzen ari ginela, arratsaldean bota zuenarekin ibilbidea guztiz lokatzuta egongo zela espero genuen. Ni lehenengoetarikoen artean atera nintzen, baina lokatzuta zegoen lehenengo zati hori kenduta, atsegina egin zitzaidan ibilbidea, ez zen gehiegi irristatzen. Ez zait iruditzen bezperan bota zuenaren ondoren oso txarra zegoenik.

**Lehen emakume uharterra izatea espero al zenuen? Segundo batzuk atera zenizkion Maite Beregañari.** Ez nuen espero. Proba zenbat denboran egiteko gai izango



seigarren (47:46). Bere hamalau-garren Km Bertikala osatu zuen Munarrizek; batean izan ezik, edizio guztietan hartu du parte.

Emakumezkoetan, Lide Urrestarazu ordiziarrek ez zuen areriorik izan (51:33). 2 minutu eta erdi atera zizkion Irene Artazkoz iruindarrari (54:04). Hirugarren Leire Elola tolosarra izan zen (55:10). Izaskun Beunza olaztiarra lehen sakandarra izan zen, emakumezkoetan seigarren (57:36). Bestelako hitzordurik edo txapelketarik ez badu, ziurrenik larunbatean jaioterrian jokatu den Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa prestatzeko erabiliko zuen Kilometro Bertikala. Azken bi edizioetan Urbasako txapel-duna izan da Beunza, eta pentsatzekoa da hirugarrena lortzeko saiakera egingo duela.

#### Uhartan, aldaketa

Uharte arakildarren artean azkarrena Jose Luis Beraza izan zen (55:12), ohi bezala. COVID-ari ezin buelta eman zegoela azaldu zuen uhartearrak, baina sentsazioak berreskuratzen hasia dela. Emakumezkoetan, ordea, sorpresa izan zen, Aizea Berazak, bere lehen parte hartzean, herriko lehen saria eskuratu zuelako (1:01:37). Maite Beregaña segundo gutxira sailkatu zen (1:01:41), eta ezin izan zuen iazko podiuma berri, baina pozez zoriondu zuen Aizea Beraza.

Beriaindik jaitzita, primerako giroa zegoen Uharte Arakilgo

plazan. Auzate mundiala prestatu zuen Aralar Mendik, eta korrikalariek ere opari sorta galanta jaso zuten. Tartean, sekulako arrakasta izan zuen poltsa, San Donato baselizaren irudia duena. "Etiketa Berdea ekimenean gaude sartuta, eta helburua da gure probetan ingurumena zaintzea, eta ahalik eta plastiko gutxien erabiltzea da. Modu bat, poltsa berrerabilgarriak oparitzea zen, eta hala egin dugu. Jendea-ri asko gustatu zaio. Herritarrek galdetzen digute, ea poltsak salgai jarriko ditugun" zihoen Aralar Mendiko Juanjo Goikoetxeak, irribarrez.

#### EH-ko Km Bertikalen Kopa

Uharte Arakil Beriain Km Bertikalen Kopako azken proba puntuagarria zen, eta kopako borrokan lehia estua izan zen. Azkenean, gizezkoetan Aritz Unamuno izan zen txapelduna, Iñigo Larizek eta Iñaki Goenagaren aurretik, eta emakumezkoetan Garazi Adasolo gailendu zitzaien Leire Elolari eta Maite Zabaletari. Juniorretan Ibai Angulo gailendu zen, eta beteranoe-tan Iñigo Lariz. Taldeka, Gasteizko Gaikar izan zen txapelduna, Elgoibarko Morkaikoren eta Uharte Iruñea eta Burlatako Hiru Herriren aurretik. Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioko presidente Martin Montañes eta Euskadiko Mendi Federazioko ordezkariak eman zituzten sariak.

nintzen, gutxi gorabehera, banekien, baina aurreikusi baino pixka bat gehiago hobetu dut nire denbora. Ordu bat, minutu bat eta 37 segundotan egin nuen, eta ordu bat eta 3 minuturen bueltan ibiltzea espero nuen.

#### Aurtengoa ez zen errekorrek egiteko egunik aproposena, baina zuretako, aldiz, bai.

Bai, horrela atera da. Oso pozik nago. Hasieratik indartsu sentitu nintzen. Niretako erronka bat zen, proba bat, halako lasterketa motza oso esplosiboa delako. Lasterketa luzeagoak erosoago egiten zaizkit, lasterketan barna une ezberdinak ditudalako, eta agian momentu batean abiadura mantsotzen duzu, eta hurrengoan azkartu, baina hemen, hasieratik, ahal dudan guztia eman beharra nuen.

#### Bi semeak trofeoa hartu nahian mokoka ibili dira.

Bai (kar-kar). Galdetzen zidaten: "baina lehenengoa izan zara?", eta nik: "bai, baina Uhartekoa". Goiz partean ueste dut beraiek ere urduri egon zirela. Herrian lehenengo aldiz parte hartzen nuenez, beraiendako ere berezia zen. Izan ere, herrian aldatzen da; urduritasunaren aldetik, nabaritzen da.

#### Presio gehiago, agian?

Presioa, nik neure buruari jartzen diodana. Gero, egia da herrian jendeak izugarri animatzen duela.

#### Zeuek zarete zorrotzenak zeuen buruarekin.

Zalantzarik gabe.

#### Zorionak!

Eskerrik asko!



Maite Beregaña uharte arakildarra, ahalegin batean.



Ekhi Congil etxarriarra bigarren sakandar onena izan zen.



Eneko Otsagabia, igoerari ekiten.



Izaskun Beunza eta Aritz Munarriz, lehen sakandarrak.

## Sakandarrak Beriainen

#### Gizonak

1. Guillermo Ramos	42:01
16. Aritz Munarriz	47:46
21. Ekhi Congil	48:58
30. Mikel Galarza	50:55
42. Martxel Etxeberria	52:12
46. Juan Larrea	52:28
51. Ibai Senar	52:55
65. Jesus Goena	55:05
70. Jose Luis Beraza	55:12
77. Alvaro Legarra	55:37
79. Asier Ansa	55:55
94. Andoni Goikoetxea	57:21
99. Iñaki Lopez	57:56
106. Jose J. Maiza	58:50
108. Aimar Araña	58:57
115. J. J. Beregaña	1:00:07
116. Eneko Otsagabia	1:00:13
129. Carlos Mañeru	1:02:00
133. Kepa Gordo	1:02:43
146. Igor Maiza	1:03:47
148. Sergio Sanca	1:04:00
149. Iñaki Razkin	1:04:00
157. J. A. Salgado	1:05:37
159. Iñaki Agirre	1:05:52
174. Eneko Cruz	1:08:24

#### Emakumeak

34. Lide Urrestarazu	51:33
95. Izaskun Beunza	57:36
125. Aizea Beraza	1:01:37
127. Maite Beregaña	1:01:41
156. Eneko Karasatorre	1:05:29
177. Erkuden S. Martin	1:10:49

\*Ibon Ubedak ez zuen bukatu.

## Olazti-Urbasa, atzerakontuan

Larunbatean, irailak 28, XVI. Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa jokatu da, Sutegik antolatuta. 10:00etan abiatu bezain pronto, txikienendako probak izango dira plazan, eta 13:00etan banatuko dira sariak. Joan zen urtean Eki Imazek eta Izaskun Beunzak bigarren aldiz jarraian irabazi zuten etxean, eta aurten hirugarren garaipenaren bila aterako direla espero da. Probak 17,2 km eta 920 m desnibel + du, eta joan zen urteko ibilbidea izango du.

# Izan giltzarri!



**Eneka Maiz Ulaiar** Nafarroako Gobernuko parlamentaria

Egin euskal komunikabideen alde,  
egin gurearen alde,  
egin bertakoaren alde,  
egin zaitez Guaixe Fundazioaren bazkide.  
**Izan giltzarri!**



[guaixe.eus/  
kideak](https://guaixe.eus/kideak)



# Izaera propioa duen taldea

Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko bost lagunek Bulkada taldea sortu zuten duela urte bat inguru. Lau abestiz osatutako EP bat publikatu dute, eta hainbat kontzertu eman dituzte dagoeneko. Abesti berriak sortzen ari dira

**Erkuden Ruiz Barroso** ETXARRI A.

Ander Gasko, Peio Altzelai, Ander Cocera, Oihan Arana eta Aitzol Gantzarain Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko lagunak duela urte bat inguru musika egiteko biltzen hasi ziren. Abeslaria, bateria jolea, baxu jolea, gitarra joleak dira, hurrenez hurren. Bostak adin berezukoak dira, eta "betidanik" futbolearen eta parrandatan elkartzen zirela esan du Gaskok, "bagenekien bakoitzak instrumentu bat jotzen genuela eta esan genuen: geldituko gara eta ea zerbait ateratzen den". Hasi batean "gelditzeko eta denbora pasatzeko" gelditzen baziren ere, talde bezala eratzea erabaki zuten. Horrela sortu zen Bulkada taldea.

Talde guztiei bezala hasiera batean "pixka bat kostatzen" dela esan du Altzelaik. "Gero proiektuak martxa hartu zuten. Seguruaski lehendabiziko boladan esaten baziguten, ez genuen pentsatuko hemen aurkituko ginela oraintxe bertan". Taldearen martxa "oso ongi" doala gaineratu dute musikariek. Lau abestiz osatutako EP bat kaleratu dute eta hainbat kontzertu eman dituzte. Hurrengoak Sakanan izanen dira; gaur, irailak 27, Olaztiko San Migel festetan Maisunea gaztetxean ariko dira (23:30ean) Mataperros eta Mandroll taldeekin, eta datorren astean, urriaren 4an, Zama. Azken doinuak etxerantz jaialdiaren aurkezpenaren ere izanen dira, Etxarri Aranatzen, Mirari Martiarena bakarriketalararekin eta Ane Martija abeslariarekin.

Bulkada sortu aurretik taldekideek musikaren munduan esperientzia bazuten. Musika eskolan egondakoak dira, Gasko

Muga Zero taldean dago, eta Aitzolek ere taldeetan parte hartu du, besteak beste, Atzapar Rock taldean. Gasko: "Aitzol eta biok Lakuntzako musika eskolan ibiltzen ginen eta txikitatik musika egiteko gelditzen ginen. Anderri esan genion eta ondoren Peio eta Oihan deitu genituen".

## Historia

Bertsioak jotzen hasi ziren, eta behin taldeari bultzada ematea erabaki zuten abestiak sortzea pentsatu zuten. Euskal Herriko eta Nafarroako gertakariak kontatzen dituzte, orokorrean. Altzelai: "Letrak irakurtzean Nafarroako gertakariak, historia eta abarretan oinarritu garena ikusten da. Gauza txukunak atera dira". Bateria joleak gaineratu duenez, gaur egun jendeak historioari buruzko "ideia asko ez du" eta taldearen helburuetako bat "modu batez musikaren bitartez historia hori jakitea" da. "Abestiak konposatu aurretik letretan esaten diren gauza asko ez genekizkien; bilatu dugu eta entzuleei erakutsi diegu".

*Mundua bukatzeraino, 11 irrintzi, Betiko argia eta Ukabil Estuak* dira EP batean kaleratu dituzten lau abestiak, plataforma digitalan entzun daitezkeenak. Abestian Irati Andueza piano joleak, Maddi Beltza pandero joleak eta Onditz Gantzarain abeslariak lagundu dute ere. Grabazioaren orduan "estudiora grabatzera joaten zarenean dena oso argi eta prestatuta izan behar duzue",

**"MODU BATEZ MUSIKAREN BITARTEZ HISTORIA HORI JAKITEA DA GURE HELBURUETAKO BAT"**

azaldu du Altzelaik, eta zenbait talderekin aurretik esperientzia izateak lagundu zuen: "Martxan jartzen asko lagundu ziguten".

"Abestiak grabatzeko, ateratzeko eta jendeari erakusteko gogoia genuen", esan du Gaskok. Gaur egun zenbait abesti solte grabatzen direla azaldu du, "disco handi bat egin beharrean". Kuadrillakoei eta gertuko lagunei erakusteko grabatu zuten, "eta gehiago ateratzeko motibatzen gaitu". Peio: "Ez dakit duela zenbat atera genuen, eta oraindik jarraitzen dugu begiratzen astero zenbat bisualizazio gehiago dituen. Oraindik motibazio hori dugu". Entzunaldiak oso ongi doaz: "Batez ere abesti bat dago indar asko hartu duena eta kontzertuetan jendeak abesten du. Horrek pila bat betetzen du".

Bulkada taldearen musika "nahasketa moduko bat" da. Oinarrian Oi estiloa egon daiteke, baina "izaera propioa" sortzen saiatu direla esan du Altzelaik. "Desberdintzen saiatzen gara, ez dugu egin nahi guztien berdina". Esaterako, Gaskok gaineratu duenez, zenbait taldekideari metala asko gustatzen zaie, "Aitzol adibidez heavya da eta gauza metaleroak sartzeko esaten diogu". Gitarraren desberdintasun horiek, "kaña" gehiago sartzeko eta erritmo azkarrak gustatzen zaizkie.

Bulkada taldeak duela urte bat inguru eman zuen bere lehengo kontzertua, Etxarri Aranatzen, bertako zenbait talderekin batera. "Hasi batean kuadrillakoak eta lagunak ziren gehienbat, eta horrek motibatzen zaitu lehengo lerroan ikusten dituzulako". Pixkanaka jende gehiago animatzen ari dela ikusi dute, "eta hori guretzako izu-



Bulkada taldeko kideak. UTZITAKOIA

garria da. Animatzen gaitu", azaldu du abeslariak.

Kontzertuetan hainbat bertsio jotzen dituzte eta grabatu dituzten abestiekin tartekatzen dituzte. Errepertorioan beste abesti berriren bat badute, "baina ez dugu abusatu nahi ongi grabatu nahi dugulako". Altzelaik esan duenez, taldearen zuzeneko ere "progresioa" izan dute. "Lehen abesti bat jotzen genuen eta gelditzen ginen, beste bat jo eta gelditu...". Orain abestiak segidan jotzen dituzte eta "beste mugimendu" bat sortzen dela gaineratu du; "beste profesiona-

**"OI ETA METAL NAHASKETA MODUKO BAT EGITEN DUGU; DESBERDINTZEN SAIATZEN GARA"**

litate puntu bat ematen diogu". Kontzertu asko emateari "alde txar" bat ikusten diote, eta da konposatzeko denbora kentzen dietela da. "Oreka hori bilatu behar dugu".

## Etorkizuna

"Taldea batek garapen bat bilatzen duenean esaten badizu besterik gabe jo nahi duela, gezurra esaten dizu. Denak nahi dugu pixkanaka gora joatea, normala den bezala". Altzelaik gaineratu duenez abesti berriak ateratzea eta pixkanaka "gora" egitea da momentu honetan Bulkada taldearen helburua, Gaskok berretsi duena: "Oraintxe bertan gure intentzioa abesti berriak sortzen joatea eta proiektu berriak egitea da". Kontzertuetan eta haien musika entzuten "gure artean ibiltzen den jendeari" eskerrak eman nahi dizkiete.



Maisuenea gaztetxean jokaturako saioa. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

## Bardoak bigarren asteburuan irurtzundarrendako puntu bat

Nafarroako taldekako bertsolari txapelketaren bigarren asteburua jokatu zen irailaren 20an, ostiralean

### SAKANA

Aurrera doa Bardoak Nafarroako taldekako bertsolari txapelketa. Bigarren asteburuan lau saio jokatu ziren, horietako bat irailaren 20an, ostiralean, Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean jokatu zen. Bertan Joiak sakandarrez osatutako taldea eta Iruñerriko Ez-Krashak taldeak izan ziren kantuan, eta bisitariak eskuratu zuten puntua. Lekunberrin, Lekarozen eta Iruñean jokatu ziren beste saioak, 150 ikusi ingururekin eta giro "ezinhobearekin". Lehendabiziko fasearen azken asteburua jokatu da, eta fasea amaituta finalurrekoak zehaztuko dira.

Bardoak txapelketaren bigarren asteburuko saioak irailaren 20an, ostiralean, jokatu ziren. Lehengoa Olatzako Maisuenea gaztetxean jokaturakoa izan zen, eta D multzoko sakandarrez osatutako Joiak eta Iruñerriko Ez-Krashak taldeak aritu ziren. Idoia Granizo, Jone Rubio, Aitziber Leoz, Oier Lakuntza, Iratxe Legarra eta Olatz Bados bertsolari sakandarrek osatzen duen taldeak ezin izan ziren iruindarre aurre egin, eta talde bisitariak eskuratu zuten puntua. Iratxe Legarra izan zen gai jartzailea, eta 70 bat lagun izan ziren saioan, "giro ederrean".

Lekunberriko Printzan jokatu zen ostiraleko bigarren saioa eta bertan herriko eta Irurtzungo bertsolariez osatutako Pikutara goaz eta Barañain eta Atarrabiako Argako Bixiguak taldeak izan ziren parez pare, 25 lagun aurrean. Zigor Gartzia Zianek egin

zituena gai-jartzaile lanak, eta "etxeok", Aitor Irastortza, Julen Bernardo de Quiros, Joana Ziganda, Endika Legarra, Zigor Gartzia, Juan Felipe Lizarraga Ipe eta Jose Martin Mugiro bertsolariek osatzen dute taldeak irabazi zuten puntua.

Ordu beretsuan izan zen Iruñeko Zaldiko Maldiko elkartearen saioa eta bertan Drimtim eta Lizarrako Assuranceturix taldeak aritu ziren. Bertako taldeak eskuratu zuen saioko puntua, eta ondoren merendu bikaina prestatu zuten etxeok, eta entzuleak eta bertsolariak "giro onean" aritu ziren solasean, "Bardoetan ohikoa izaten den bezala". Lekarozko plazan jokatu zen asteburuko azken saioa eta bertan izan ziren etxeko Mutilatuak eta Erroibargo Pirini Bardo taldeak. Azkenean, Bortziariak-Baztango taldeak eskuratu zuten puntua.

### Azken saioak

Lehen fasea bukatzeko bost saio gelditzen dira, irailaren 27an eta 28an jokatu direnak. Asteazkenean Iruñean Ez-Krashak eta Mutilatuak taldeen arteko saioa izan zen, hirugarren asteburuarri hasiera emanez, eta ostiralean Atarrabian, Erronkarin, Eugin, Leitza eta Errantzun izanen dira saioak. Joiak sakandarra Eugin izanen da Pirini Bardo taldearekin, eta kide altsasuarrak dituen Manteleko sobrak Leitza izanen da Drimtim taldearekin. Sei talde pasako dira finalurrekoetara.



Etxarri Aranatzeko taldekako borrokaren parte hartzaileak. UTZITAKOIA

# Bikingoen lurraldea

Aker Gorriak elkarteak antolatuta erdi aroan oinarritutako akanpalekua eta dueluak eta taldekako borrokak izan ziren Etxarri Aranazko Haritzen bidean. 80 bat historia errekreataile bildu ziren, eta bi gau eta hiru egunegaz garai batean bezala bizi izan ziren

### Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A.

Kanpin dendak, suak, armadurak, lantzak, ezpatak... Irailaren 20tik 22ko asteburuan Etxarri Aranazko Haritzen bidearen inguruak hamahiru bat mende atzera egin zuten eta bikingoen VIII. eta IX. mendetako akanpaleku batean bihurtu zen. Aker Gorriak birsortze historikoak egiten dituen elkartearen topaketa izan zen. Besteak beste, dueluak eta taldekako borrokak egiten dituzte elkarteak kideek. 80 bat pertsona bildu ziren, 40 bat borrokalariak eta beste 40 errekreataileak.

"Errekreataileok ostiraletik igandera akanpalekuan elkarrekin bizi gara eta saiatzen gara historiako aro horretan erabateko murgiltzea izatea; kanpin dendetan lo egiten dugu, garai horretan jaten zutena koinatzen dugu... Gutxi gorabehera garaiko akanpaleku batera gerturatzen gara, zenbait erosotasun modernorekin". Xabier Murgiondo historialaria Aker Gorriak elkarteak idazkaria da. Etxarri Aranatzeko hiru egun egon ziren, "eta oso polita da". Errekreataile askok gehien baloratzen dutena akanpalekuan egoten diren egun horiek direla

esan du, "dena ahaztu egiten duzu; XXI. mendea, telefonoak... dena". Birsortzea "oso polita" den arren, eguraldiaren eragina bizi izan zuten ere, "dendak busti ziren, ekipoaren zati bat, lokatzez beteta zegoen...". Hala ere aurre egin zioten eta aurreikusitako konbateak eta ekimenak aurrera eramanez zituzten, "oso ongi ateratu zuten".

Aker Gorriak elkarte erdi aroko borrokak eta birsortze historikoak egiten dituen Nafarroako elkarte bat da. Murgiondok azaldu duenez, konbatearen aldetik sortu zen gehienbat. "Hainbat pertsona beste borroka espezialitateetatik edo antzeko kiroltatik etortzen ziren eta taldekako borroketan parte hartzea zen helburua".

Europar zehar erdi aroko borroketan oinarritutako hainbat ekimen egiten dira, eta horietan parte hartzeko helburuarekin

**"ERREKREATZAILEAK ERDI AROKO AKANPALEKUAN ELKARREKIN BIZI GARA"**

sortu zuten elkarte: "Europar oso konbate ezagunak daude, Poloniakoa, esaterako. Madrilen talde bat dago eta elkarte sortu genuen". Kideak gehitzen joan ziren heinean ekimen gehiagotara joaten hasi ziren. "Gaur egun konbatearen alde oso garrantzitsua da, baita errekreazioarena ere. Elkartearen badago jendea borrokalari ez dena. Ekimen asko egiten ditugu: akanpalekua, hitzaldiak, janaria...".

### Erdi aroa

Aker Gorriak elkartearen bikingoen aroan, "gehienbat VIII. eta IX. mendeetan eta X. mendearen zatitxo bat", oinarritzen dute haien birsortzea. "Oraindik biziraute zuten iparraldeko kultur paganoa, ez zegoen guztiz amaituta, eta garai horretan ez zeuden estatu handiak edo boteretsuak. Denak erreinu txikiak eta feudoak ziren. Europar, gainera, mugimendu geografiko oso handia egon zen eta europar ekialdea, bizantiar inperioa, mediterranean eta atlantiar inperioak... hartzen ditu", azaldu du Murgiondok. Aro oso interesgarria eta bere garaian bertan "oso desberdina" dela gaineratu du. Bikingoen



Erdi aroko akanpalekua. UTZITAKOIA



Etxarri Aranatzeko egindako erdi aroko duelua. IGOR CRUCHAGA / DANDO AL REC

garaiaren "nolabaiteko idealizazioa" dagoela esan du historialariak: "Alde misteriosu bat dago, ez dago iturri idatzi askorik, behintzat beraiengandik, eta beste kultura oso desberdin bat zuten bere garaikideekin alderatuta". Erdi aroko konbatearen barruan ere, taldekako borrokaldi "masiboak" onartzen duen diziplina dela azaldu du, "300 bat pertsonak parte har dezakete, Polonian egin genuen bezala".

Erdi aroko konbateak kontaktu kirol moderno bat da, "gaur egungo planteamendu batekin segurtasunean, babesean eta arautegi bat dauka, arbitroak...". Oinarri eta zehaztasun historikoari lotuta dago, "baina kirol moderno bat da, gaur eguneko errealitateara egokituta". Beste edozein kirol bezala entrenatzen dute. Borroken eta jokoaren arabera modalitateak daude: "bat bider bat, bost bider bost... Mota askotako konbateak daude, eta

bakoitzak arautegi desberdin bat du Europa osoan erabiltzen direnak". Arautegietan zer kolpe eman daitekeen, zein ez eta abar aipatzen da. Aker Gorriak elkarteko borrokalariek igandero entrenatzen dute, "eta astean zehar ahal dugunean ere". Zaletasun bat baino gehiago bada: "Honetan sartzen zarenean bizitzaren parte bat hartzen dizu, baina izugarri disfrutatzen dugu".

Birsortzen historikoaren barruan eta arautegiaren arabera ere "hainbat kontzesio" onartzen dira, "bestela zehaztasun historiarekin baldintzak mantentzen saiatzen gara bai akanpalekuan bai borroketan". Erabiltzen di-

**"ERDI AROKO KONBATEAK KIROL BAT DA; ARAUTEGIA ETA ARBITROAK DITU, ETA ENTRENATZEN DA"**

tuzten piezak arkeologiako ikerketetatik ateratako piezetan oinarritutakoak dira, pieza originalen birsortzeak eta abar.

Aurreko urteko amaieratik Aker Gorriak elkarteko kideek horrelako birsortze historiko baten ekimena antolatu nahi zuten Nafarroako herri batean. "Etxarri Aranatzeko izan genuen espazioaren antzeko zerbait bilatzen egon ginen, eta nahiko zaila izan dugu. Ez dugu administrazioaren laguntza asko izan". Azkenean, kide etxarriar bati esker bertan egiteko aukera ikusi zuten, "eta ekimenak aurrera egin zuten".

#### Etxarriko akanpalekua

Etxarri Aranatzeko egindako ekimena "izugarria" izan zela esan du Murgiondok. 80 pertsona bildu ziren, "inguruetatik, espainiar estatutik eta iparraldetik jendea etorri zen". Denek esperientzia eta tokia "izugarri gustatu zaiela eta oso gustura egon direla" esan dute. "Horrelako ekimen bat egiteko ezin dugu ezer gehiago eskatu, lur eremua primeran zegoen ere...".

Errekreazioak ostiralean iritsi ziren Etxarri Aranatzera eta erdi aroko akanpaleku bikingoa jarri zuten. Ostiral gauetik, beraz, birsortzearekin hasi ziren. Larunbatean bat bider bat kontrako dueluak egin zituzten eta ondoren zubi konbateak izan ziren: "Bost bosten kontra egurrezko taula batean borrokatu behar dute, aldetara erori gabe". Egun berean hitzaldiak izan ziren; besteak beste, bikingoek erabiltzen zituzten borroka tresnei buruz hitz egin zuten, runak eta iparraldeko sinologiaren inguruko hitzaldi bat egon zen ere, eta elkartearen beste kide batek garaiko oihal eta ehunei buruz hitz egin zuten. Akanpalekuan ere ehuleak egon ziren, uzta jasotzen egon ziren... "Etxarri Aranatzeko nobedadea itsasontzi borroka izan zen, zazpi bider zazpi konbate bat da".

Konbateak amaituta eta behin akanpalekura publiko orokorrari itxita, errekreazioa egiten zutenendako ekimenak eta jarduerak izan ziren akanpalekuan: "Suan kozinatze teknika desberdinak egin genituen, sutearen inguruan narrazioak, poesia eta abarren lehiaketak egin genituen...". Igande goizean, besteak beste, borroka talde guztiak bi bandotan nahastu ziren eta hogeit hogen kontrako konbate bat egin zuten, birsortze historikoari itxiera emanez.

## ZETAken kontzertu berezia Unanuko herriari eskainia

Bihar mila pertsona espero dira Unanun; sarrerak agortu dira. Herriak egun osoko egitaraua prestatu du

ERGOIENA

Pello Reparazek ZETAken AAZ-TIYEN diskoko iruditeria sortzeko Unanuko mamuxarroetatik "asko edan" du, eta proiektuari "emandako guztia eskertzeko" Unanuko herriari eta mamuxarroei eskainitako kontzertu berezia antolatu dute irailaren 28an, larunbata, Unanuko plazan. Taldeak duela zenbait egun sareetan jakinarazi zuenez, kontzertua "irekia" izan behar zen, baina segurtasun arazoengatik "delimitatzea" erabaki zuten. Unanuko eta inguruko herriak biztanleek eskuratu

zituzten sarrerak, eta agortu dira. Herriarrek egun osoko egitaraua prestatu dute.

Unanuk ehun biztanle baino gutxiago ditu eta biharko emanaldian mila pertsona elkartuko direla aurreikusi dute. "Ikusgarria izango da". Kontzertua ZETAken bosgarren urteurrenaren eta urtarilean emanenduen MITOAROA ikuskizunaren baitan kokatzen da: "Mamuxarroak gurekin eramango ditugu".

Aparkalekuak herriatik kanpo egongo dira, eta alkateak ergoien-darrei autoz ez joatea eskatu die.

### BAZTERRETIK

IRATI EIZAGIRRE SAGASTIBELTZA

## Bakearen nazioarteko eguna



# "Gure burua ezagutzeko lengoaia da astrologia"

Raquel Iriarte Bidegain astrologoa Urdiainen bizi da eta karta astralak irakurtzen ditu. Astrologia autoezagutzarako tresna bat dela dio, eta egunerokotasunean zerikusia duena. Aurreko asteburuan Urbasan izandako topaketa batean parte hartu zuen

**Erkuden Ruiz Barroso** URDIAIN

## 1 Zer da astrologia?

Arbasoen diziplina bat da. Gizakia ez gara pertsona bat lurrean jarrita; zerbait handiago baten parte gara. Printzipio nagusia da: goian ematen dena behean ematen da; barruan da goena kanpoan dago. Honi jarraituz, zeruan dauden planeta guztien mugimenduak nolabait guregain eragina dute. Makrokosmoari eta mikrokosmoari buruz hitz egiten du. Kosmoaren eta gizakiaren arteko zubi bat da, oso gizaki egiten gaituena. Nik autoezagutza tresna bezala erabiltzen dut. Gizakiaren natura ulertzeko, argia eta argitasuna eskaintzen digu.

## 2 Zergatik zara astrologoa?

Betidanik harrapatu nau zerura begiratzeak; iluntasun horrek harrapatzen ninduen handitasun

bat zegoen. Izarrak ezagutzen hasi nintzen eta pixkanaka bizitzak astrologia ezagutzera eraman ninduen. Bilaketa pertsonal batean nengoen eta astrologia giltza izan zen; hau dena naiz.

## 3 Zer egiten duzu?

Astrologian karta natalaren bidez lan egiten da; jaiotzen zaren momentuaren eta tokiaren zeruaren argazkia da. Dakartzagun energia potentzialei buruz hitz egiten du.

## 4 Nola iritsi zinen astrologo izatera?

Duela 14 urte astrologia ikasten hasi nintzen Iruñean, Iselda Verarekin. 2020an Carina Falcon, Mujer Lunar; emakume mexikar bat ezagutu nuen, eta astrologiaren beste ate bat ireki zidan. Izugarri gustatu zitzaidan. Lehenengo kurtsoa egin nuen, gero bigarrena eta hirugarrena. Zer-

tifikazioa aterako nuela zin egin nuen, eta erronka handi bat izan zen. Astrologia oso handia da, baina niretako astrologiaren gauzarik politena da gure bizitzetara jaitea; egunerokotasunean oso erabilgarria da.

## 5 Nola egiten da karta astrala?

Mapa astrala bakarra da. Jaiotze datarekin ateratzen da: programa batean sartu eta mapa ateratzen da. Norberaren izaeraren zatiak jakin ditzakegu. Garrantzitsuenak eguzkia, ilargia eta goranzko astroa dira. Hortik aurrera harilkatzen joaten gara: nola harremantzen garen, gure portaera mekanismoak, emozio beharrak, baliabideak, nola ikasten dugun, beldurrak eta blokeoak... Kontzientzia hartzen hasten gara. Karta itxia da, baina ez digu patuari buruz hitz egiten; biratzen doa. Bizitzan garatzen joaten gara; zerbait bizia da.



Raquel Iriarte Bidegain astrologoa.

## 6 Etorkizuna irakur daiteke?

Badago astrologiaren alde prediktibo bat. Nik ez dut egiten. Niri pertsonalki ez dit balio. Etorkizuna ez dago idatzia; norberak egunero idazten du hartzen dituen erabakiekin. Unibertsoan energia bat egon daiteke, baina zuk erabakiak hartzen dituzu, jakin gabe goian zer gertatzen ari den. Erabaki horiek bide batetik eramaten zaituzte.

## 7 Badago jende askok ez duena sinisten...

Astrologia ez da sinistu behar; ez da dogma bat. Gure burua ezagutzera eramaten gaituen lengoaia da. Baliagarria izan daiteke edo ez; erabil dezakezu, har dezakezu, ezagutu dezakezu... Jende askok esaten dit ez duela baldintzatzea nahi. Ez. Jaio garen familian jaiotzeagatik baldintzatu gaude. Kartan ikusten dugu nola egin dezakegun gu izateko, askatasun pertsonala lortzeko. Nik ez dizut esango zer egin behar duzun zure bizitzarekin.

## 8 Eta horoskopoaren zeinuarekin justifikatzen direnak?

Horrek ez du balio; aitzaki bezala erabiltzen ari zara. Astrologiak kontzientzia bat ematen digu; aitortzen badut nire eguzkia aries dela eta horregatik osti txar handia dudala... Ezin naiz hor gelditu. Aries zarela esaten didazunean bakarrik eguzkiaz hitz egiten ari zara, eta hori kartaren alde oso txiki bat da; milioika energia daude. Nik alde ilargia-

ren aldetik lan egiten dut. Gure esentzia ematen digu.

## 9 Ilargia ere oso garrantzitsua da, ezta?

Ilargia gizakia kosmosarekin batzen duen astroa da. Izan garenaren memoria ematen digu; autoezagutza. Bizitzaren zikloak ekartzen dizkigu. Sinistarazi digute bizitza lerro bat dela; Unibertsoaren zikloetan integratzen garenean, ikusten dugu bizitza ziklikoa dela, ilargia bezala.

## 10 Ilargi beteak eklipse batekin pasa berri dugu, ekinozioaren atarian.

Ekinozioa hasten da eguzkia libra arketipoaren zero graduan sartzen denean. Lurraren gurrupilarekin, erritmoekin eta jaiekin zerikusia du. Eklipseak transformazio momentu oso handiak dira; aldaketa momentu oso azkarrak markatzen dituzte. Ez du zertan kanpoan eman behar; agian barrukoak dira. Zure kartan agertzen denaren arabera gauza bat edo beste mugituko dizu.

## 11 Astrologian erritualak egiten dira?

Eklipse garaian ez dut gomen datzen energia oso handia delako. Besterik gabe, gorputzak esaten digun bezala bizitzea. Ekinozioan erritualtxoak egin daitezke; niri gustatzen zait lurrari ematen digunagatik esker tzea. Erritualak gurekin konektatzea da, ez dut esango: "hartu edalontzi bat eta..."

# PROIEKTU BERRI BAT DAUKAZU?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

**gk**  
DISEINUA ETA  
KOMUNIKAZIOA



619 821 436  
info@gkomunikazioa.eus  
www.gkomunikazioa.eus  
Foru plaza, 23-1. Altsasu

